

uk

197. zenbakia / 2011ko ekainaren 20a



Atzeko jesarlekua
estreinatu
aurretik...

Praktika ezazu!

Gidabaimena
euskaraz

Diru-laguntzak
gidabaimena ateratzeko
azterketa euskaraz egiteagatik*

Teorikoa gehienez **150€**
Praktikoa gehienez **50€**
lehenengo klasean

Getxoko autoeskolak euskaraz

ALGORTA AUTOESKOLA Tel. 94 460 94 43 AMEZTI AUTOESKOLA Tel. 94 491 09 15 ARIAS AUTOESKOLA Tel. 94 463 88 57 /
94 430 11 44 / 94 463 00 19 DAM AUTOESKOLA Tel. 94 602 05 09 GETXO AUTOESKOLA Tel. 94 430 25 71 PRECIADO
AUTOESKOLA Tel. 651 961 901 SAN INAZIO AUTOESKOLA Tel. 94 460 00 45 URIBE KOSTA AUTOESKOLA Tel. 94 430 06 05


Informazio gehiago: 94 466 00 11

*17-23 urte artekoentzat



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
ERREDAKZIOA: Zubereroa Iturburu, Julen Nafarrate,
Maitane Nerekan
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurrola, Fredi Paia,
Algortako Bertsu Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
AHOLKULARITZA: Jokin Aspuru
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. San Antonio Eguna, Martiartu (Erandio).
7. LEHEN ETA ORAIN. Algortako Los Puentes.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Karmele Mentxakatorre.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20.
Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Pinosolo parkea, Leioa.
28. ARGAZKIA. Pistolak salgai, Lamiako.
30. BERBETAN. Jokin Etcheverria.
34. FOTOGRAFIA. Mikel Martinez.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Gaurik laburrena film labor emanaldia.
43. MUSIKA. Euskal Herria Zuzenean Jaialdia.
44. LIBURUAK. *Itsaso kontra bat*, Karmele Igartua.
45. KIROLAK. Axi Muniain elkarriketa.
46. ELKARRIZKETA. Eider Fernández eta Lorena de Frutos.

AMAITZEKO

49. UDAKO ZAPOREAK. Urdulizko Rabu Txapelketa.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Algortako Zabala Eskola, 1923.
54. AITORMENAK. Urko Aristi

Azala: Mikel Martinez

www.ukaldizkaria.biz



30 Jokin Etcheverria

Berbetan

Bilbotartutako lapurrak goxo eta mantso egin digu berba "turista profesional" eta proiektuez.



11 Karmele Mentxakatorre



54 Urko Aristi



WWW.RENAULTLEIOA.COM

Leioa
RENTACAR
Ibilgailu-aloakirua

Tf. 682 466 466
www.leioarentacar.com

Leioa Berri Auto
HARTU TXANDA ONLINE-CITA ONLINE
www.renaultleioa.com
Tf. 94 480 46 02

David Crestelo Kres

> Plasentia-Butron Museoko arduraduna

Itsasontziak nazioarteko herriak

UKren 192. alean Plentzia eta Gorlizko pertsonaia batzuek munduan zehar beren ize-nak munduko hainbat txokori, elementu geografikori, museo edota herri bati eman zietela kontatu genuen. Oraingoan, gaiari buelta emango diogu, gure herri eta auzoek, mendi edota baserriek munduan zehar ibili diren itsasontzi ezberdinei emandako izenak aipatuz. Hainbat dira honen adibide, guk gutxi batzuk besterik ez ditugu kontatuko.

Correo de Plencia gabarra lehenengoa da, XIX. mendearen erdian eraiki zena. Mende horretan Nikolas Olagibel Esnal armadore plentziarrak ontzidi handia zeukan, eta bere ontzi artean *Ardanza* (Barrikako Elexalde auzoagatik), Ysusquiza (1850ean eraikia, auzo plentziarraren izenarekin), *Plencia eta Barrica* zeuden.

Pio Baroja jaunak, *La Estrella del Capitán Chimista* liburuan kontatzen duen moduan “*Orbeta familiako* batek herritar bati 430 tonako La Plencitarra fragata erosi zion”. Orbetaren ondorengoek esaten dutenaren arabera, Filipinetan bizi ziren senideek itsasontzia Kubara *coolie*-ak edo esklabo txinatarrak eramateko erabiltzen zuten.

Hiribilduaren izenarekin beste ontzi batzuk ere egon ziren: *Plencia*, geroago Sota y Aznar enpresako *Andraka Mendi* izan zena, 1898an eraikia; Santiago Ibarreche Benguria ontzi-enpresako *Plencia*, 1912an egindakoa eta 1921. eta 1925. urteetako *Plencia 1* zb. eta *Plencia 2*. zb. hurrenez hurren. Azkenik, 1985ean Naviera Vizcaina enpresako *Plencia* hozkailu-ontzia Alemaniako Rostock-eko portutik gertu hondoratu zen, Uribe Kostako uriaren izena eraman duten ontzien historiarekin amaituz.

Gorlizko elizatearen izena gutxienez hiru itsasontzik eraman zuten: 1898ko Gorliz baporea, geroago *Astondo Mendi* izena hartu zuena eta *Gorliz* izena zeraman goleta, Ugarte Zabala anaiak honen jabe ziren eta Filipinak



eta Japonia arteko itsasbidea osatzen zuten. Azkenik, 1919. urtean egin zen Gorliz merkantzia-ontziak ontziolan besterik ez zuen izena mantendu, Astilleros del Nervion-ek eraiki ostean Ybarra konpainiak hartu baitzuen, *Cabo Ortegai* izena eman ziolarik.

Lemoizko portuak ere bere izena zeramaten itsasoetako bi bozeramaile izan zituen: alde batetik, 1898. urtean *Arminza* ontzia, 10 urteko nabigazio eskasa izan zuena, 1908an Frantziako mendebaldeko kostaldean enka-

latu zelako. Bestalde, hozkailu-ontzi izan zen *Arminza*. Honek besteak baino istorio tragikoagoa izan zuen 1966. urtean Sestaoko La Naval ontzioletan eraikitzen ari zirenean, eraikuntza lanean zegoen langile bat hil zelako.

Barrikako *Charta* baserria edo Ayo Lopategi anaien goleta, Gorlizko Astondo hondartza edo *Astondo* bulkarriera, Arkote Arraun Taldea edo *Arcotes* baporea... lehen esan dugun bezala, zerrenda bukaezina izan daiteke. ○

gu geu

Kantatzen duen herria...

“*Festarik festa lan egin behar gauero; festarik festa hor nabil ni egunero...*”. Badakigu horrela zabilazala “egun-ero”; udako solstizioak jota gaude eta San Juan suari salto eginda, udako rallya hasteko prest ere.

Uribe Kostan musikak kaleak hartzen ditu udako sargoria heltzean. Herriz herri, klasikoentzat zein tendentzia barriak gustuko dituztenentzako eskaintza egongo da. Getxon Bluesak Jazzari utziko dio lekua eta izen handiko musikariak hurreratuko zaizkigu, Chucho Valdés kubatarra besteak beste. Sopelako San Pedroek Zea Mays, Canteca de Macao, La Kinky Beat, Trikizio eta Gora Herria taldeei utziko diete eszenatokia. Heletan, Euskal Herria Zuzenean musika jaialdiak Ipar Euskal Herriari jarriko dio doinua. Leioan, Gose, Esne Beltza, Estricalla eta bestelako taldeak hasi dira daborduko leioztarrak dantzari jarri dituzten San Juan jaiei musika jartzen.

UKn horren guztiaren zein beste hainbat gairen barri ematen dizugu. Beraz, gogoratu; hondartzako zorroan esku-oihal edo pareoagaz batera aldizkaritxo kuttun hau sartu, ondo informatuta egon gura baduzu behintzat.

UK-ko lantaldea

ERANDICO, 2017KO EKAINAREN 13A

San Antonio Martun/ Ekainaren 13an San Antonio Eguna ospatu zuten Goierriko Martun. Andra-gizonak dotore jantzi ziren eskualdean garrantzi handikoa den eguna ospatzeko; tradizioak agindu bezala meza eta luntxagaz bete zuten goiza Erandioko paraje magikoan. Ezagunak agurtzeko aukera eman zien ospakizunak. San Antonioko ohiturak egun handia baino 13 aste lehenago hasten dira gurean. Jakin badakigu, oraindik ere emakume koadrila ederrak martitzeno erromesaldia egiten duela Getxotik Martura ohiturari eutsiz. Ekintra txikiak garrantzi handia dute herri-ohiturak bizirik mantentzeko. ○ / Argazkia: Asier Mentraka



Dendaketan

ZORIONAK!

Amaitu dira DENDAKETAN ikastaroko aurtengo klaseak. Getxoko 6 merkatarik egin dute DENDAKETAN izeneko ia 60 orduko ikastaroa. Bezeroei arreta euskaraz egiteko ikastaro laburra da. Euskaraz ez dakien dendariari lehenengo urratsak ematen lagunduko diona, oinarritzkoa. Orain arte, Getxoko ia 50 merkatarik egin dute ikastaroa. Datorren ikasturteko DENDAKETAN ikastaroetan izena emateko epea irailean zabalduko da. Esan egiozu zure dendariari!!

NAIARA ALONSO: PESCADERÍA GETXO
ARANTXA AYO: TABERNA BERRI
SONIA DIEZ: FARMASHOPING

PILAR GAMBÍN: DON'T AKADEMIA
MARIAN RONCHAS: DON'T AKADEMIA
LETICIA SOUSA: INSTALSAITUR



GETXOKO UDAL LEIURUTEGIA



ASIERMENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / ALGORTAKO LOS PUENTES

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > hildako basoa



2011ko otsaila, Sopelan

Testua: **Beñat Vidal** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Esateko ez naiz lotsa

Ekaitza eta tximista, hori da behar zen txispa. Lehenik argitu gero ilundu zigun suak bista. Egoera zein den begizta, egina kalteen lista: Txarrago ezin da eta izan gaitezen ba optimista.

Suak utzi du jarduna eta kolore iluna, ezinbestean oraingo lana zinez da astuna. Joan dadin iluntasuna lanean gaua, eguna; epe luzera berdea gura badugu etorkizuna.

Ai geroari begira ezin beti egon tira, basoa ez da bi egunetan berdetuko di-da. Txoriak euren kabira laster itzuliko dira eta orduan bai egingo du berriz basoak dizdira!

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidai lezaguazu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....

Kalea/zenb.....Herria.....

e-mail..... Telefonoa.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bateuro

Kontu zenbakia (20 digito)


zinema > kameratoia Topagunearen lehiaketa Uribe Kostan izango da



Izena emateko: www.kameratoia.com

Uztailean egingo dute Kameratoia film laburren lehiaketa. Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak leku bat aukeratzen du urtero txapelketa egiteko, eta aurten gure eskualdeari egokitu zaio; Uribe-Kostako Mankomunitateagaz eta Sopela, Urduliz eta Lemoizeko Udalakaz batera antolatu du ikus-entzunezko rallyaren zarpigarren edizioa. Bideo lehiaketa da Kameratoia eta “*gazte euskaldunen sormena sustatzeko asmoz*” egiten dute. Bakarka zein taldeka, parte-hartzaileek bost egun daukate ezarritako gai eta ezaugarriak errespetatzen dituen bideo laburra idatzi, grabatu, editatu eta aurkezteko. Hiru lanik onenak sarituko dituzte 1.500, 1.200 eta 900 eurogaz. Lehiaketaren webgunearen bitartez eman behar da izena, ekainaren 24 baino lehen: www.kameratoia.com. Uztailearen 9an Urdulizen emango dute gaiaren eta ezaugarrien barri eta 23an proiektatuko dituzte lan guztiak Sopelan, sariak banatzeagaz batera. ○

euskara > euskalterm zerbitzua barritu dute interneten



www.euskadi.net/euskalterm

Euskalterm terminologia bankuaren bertso barria dagoeneko sarean da, www.euskadi.net/euskalterm gunean, nahiz eta bertso zaharra ere oraingoz martxan egon. Orain 14 hiztegi terminologiko eskaintzen ditu, bilaketaren emaitzak sailkatuz, baina horiek guztiak ikusi ahal izateko, atalez atal klikatu behar da. Erabiltzailearentzako deserosoago gertatuko da hau, izan ere, lehen klik bakarrean ikus zitezkeen emaitza denak; orain, ostera, hainbat klik egin behar da. Bestalde, emaitzetan hainbat ponderazio-marka erakusten da, terminoen fidagarritasuna adierazteko. 0 marka dutenak baztertzekoak dira, eta 4 dutenak, termino normalizatu eta gomendatuak dira. Azkenik, erabiltzaileak ekarpenak egin ditzake, zuzenketa egiteko edo termino barriak gehitzeko. ○

saiazgetaria HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa

...harria ...lehengo garaiak... ...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

[talaia]


getxo > benta tabernaren esleipen prozesua gelditzeko eskaera



Ekainaren 10eko prentsurrekoa

Benta ostatu publikoa errentan esleitzeko prozesua abiatu du Getxoko Udalak. Hamar urtekoa izan daitekeen esleipenerako baldintzen artean, ez da beharrezkoa langileak koofizialak diren bi hizkuntzak menperatzea; langileen euskara maila meritu gisa baino ez dute puntuatuko. Bentak dinamika erdalduna hartuko balu, hamarkada batez izan liteke hizkuntza normalizaziorako traba linguistikoa udalerriko zonalderik euskaldunenean. Udal Gobernuaren erabakia ez dator bat Euskara Biziberritzeko Planagaz, ez getxoztarren hizkuntza eskubideak bermatzeagaz. Iaz Ereagako Terraza tabernan gertatutakoari gehitzen zaio hau. Horregatik guztiagatik, Bizarra Lepoan, Boluntzarreta eta Ukberri elkarteok Udalari eskatzen diogu Benta esleitzeko prozesua bertan behera utzi eta berrasteko, getxoztarren hizkuntza eskubideak bermatzeko ezinbestekoa den baldintza ezarrita: zerbitzua euskaraz ere eman beharra. ○

bertsolaritza > datu-basea sortu dute interneten



bdb.bertsozale.com

Xenpelar Dokumentazio Zentroan jasotako ondare guztiari buruzko informazioa internet bidez zabaltzeko, Bertsolaritzaren Datu-Basea garatu du Bertsozale Elkarteak; *bdb.bertsozale.com* ataria da eta bertsolaritzari buruz bildutako dokumentazio guztia jendartuko du. Bertso saioen agenda, bertsolaritzan aritu edo ari direnen biografiak, gaurdaino izan diren txapelketa, lehiaketa eta sariketei buruzko informazioa, doinutegia, bertsoak eta Xenpelar Dokumentazio Zentroan jasotako grabazioei buruzko informazioa eskura daitezke tresna barriagaz. Duda barik, erreminta baliagarria izango dute bertso zaleek, bertso saioak antolatzen dituztenek, bertso-eskoletako ikasle eta irakasleek, baita ikerlariak ere. Ez da *Hitzetik Hortzera* hasteko itxaron beharko saio zaharrakaz gozatzeko. ○

[erretratua]



“Udatiar barik, ez genuke negozioirik egingo”

Karmele Mentxakatorre > Txurro-dendan 1967. urtetik

Adarretatik heltzen dio urtero Karmele Mentxakatorre gorliztarrak ‘udatiarrak’ izeneko zezenari. Aste Santutik irailera arte, txurro-dendaren atea zabaltzen ditu Gorliz eta Plentzia artean dagoen Areatza kalean, hondartza alboan. Izozkia hartu beharrean, txurroak erosten dituzte hondartzara joaten diren askok, usainak erakarrita. Beroari aurre egiteko, janari eta edari beroak hartzea ei da egokiena: *“Herrira etortzen diren udatiarrek erosten dute. Udatiar barik ez genuke negozioirik egingo”*. Senarrak bultzatuta, 1967. urtean hasi zen txurroak saltzen, eta geroztik ez du hutsik egin. Bezeroak dira, baina, huts egiten hasi direnak: *“Negozioa kili-kolo doa. Askok esaten didate: ‘Ez dut txurrorik jan gura, loditzen duelako’...”*. Bainujantzia sartzeko kezka da, beraz, txurro-dendaren etsairik handiena, baina...: *“Loditzen duela esan ostean, txurro-pakete bat oparitzen diedala esaten badiet, berehala hartzen dute. Debalde bada ez du loditzen, ala?”*. Hondartzatik datozen txankletadun karramarroak ez ezik, bestelako bezeroak ere izaten ditu: *“Domeka goizetan familiak etortzen dira txurroak erosten, gosaltzeko”*. Jubilatzeo asmorik duen galdetzean, ez du zalantza izpirik: *“Zertarako utziko dut bada, paseatzeko? Hori neguan egin dezaket. Gainera, auzokideek euren arazoak kontatzen dizkidate. Psikologoaren lana egiten dut”*. Pilulak baino, seguru txurroak eraginkorrak direla! ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Julen Nafarrate**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Areetan

Villa de Plentzia, 6.
T 94 464 90 87
E areeta@cianoplan.es



BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Kulturak hurbildu aniztasunetik

Elkargune atzerritarrentzako **harrera-programako gidaren** edizio barria eta **FacePhoto** ekimena kalean dira; horrez gain, **Txiss Pun!** proiektua abiatu dute etorkinak **euskal kulturara hurbiltzeko**

Udalak hainbat ekimen jarri du martxan etorkinen harrera errazteari zein kulturak hurbiltzeari begira. Alde batetik, Elkargune atzerritarrentzako harrera-programen gidaren edizio barria kalean da. Bestetik, FacePhoto bizimodu ezberdinak argazkien bidez erakusteko ekimena abiarazi dute. Azkenik Txiss Pun! proiektua, etorkinak euskal kulturara hurbiltzen saiatuko da.

5.524 atzerritar zegoen Getxon 2009-ko azterketen arabera; hori biztanleria osoaren %6,4 da. Getxoko Udalak etorkinen harrera errazteko zein kulturak hurbiltzeko hainbat ekimen jarri du azken urteotan eta horretan jarraitzen du. Azken hilean hiru proiektu barri abiarazi dituzte.

Alde batetik, Immigrazio Zerbitzuetik, Elkargune Atzerritarrentzako harrera-programaren baliabide gidaren edizio barria kalean da. Herritarrentzat eta bereziki orain gutxi herrira etorri diren atzerritarrentzat interesgarriak diren kudeaketei buruzko informazioa eskaintzen du gidak. Lehenengo kontaktua erraztea da helburu nagusia; Interneteko bertsioa ere badu gidak (www.kaixogetxo.net) eta azalpenak zazpi hizkuntzatan daude bietan. Azken edizio honen barritasun nagusiak, barriz elkartzeko prozesuan dauden familiei laguntzeko programari eta euskarari buruzko saioa informatiboen inguruko informazioa da.



San Juan suan parte hartu zuten Suyana Bolibiako elkarteko lagunek

Bestalde, kultur artekotasunaren aldeko FacePhoto ekimena antolatu du Udalak Facebook-eko *Getxo Kulturen Artean* gunean. Getxoko auzo eta kaleetan gaur egun batera dauden bizimoduak argazki eta bideo bidez erakustea

«FacePhoto ekimeneko argazkiak ekainaren 30a arte bidal daitezke»

da horren helburua. Irudiak ekainaren 30a baino lehen bidali behar dira entreculturas@kaholamedia.com helbidera edo aipatutako Facebook-eko perfilera. Batutako argazki danak, aniztasunaren aldeko horma-irudi handi batean ikusgai izango dira datorren irailaren 8tik 11ra egingo den Getxo Folk jaialdian.

Azkenik, Euskara eta Immigrazio Zerbitzuen elkarlanari esker Txiss Pun! proiektua jarri zuten martxan apirilean. Udalerriera heldu barri diren pertsonak euskal kulturara hurbiltzea eta horien parte-hartze aktiboa bultzatzea lortu gura da ekimen horregaz. AEK-k antolatutako 17. Korrikan eman zuten lehenengo pausoa; Korrikaren inguruko berbaldia egin eta euskararen aldeko lasterketan izandako parte hartzeagaz bideoa osatu zuten. ALBE, Bizarra Lepoan, EGIZU, Gorrondatxe elkarte eta UKTEST-ek antolatutako San Juan suan ere egon ziren Suyana Bolibiako taldeko kideak. Hurrengo ekimena Olentzero egunerako dago aurreikusita. ○

Info+: www.kaixo.net/
entreculturas@kaholemedia.com

Diskoteka zineen orde

Lau zine areto kenduko dituzte diskoteka egiteko



Getxo Zinemak enpresak lanak hasi ditu dagoeneko

Joan den urte akabuan hasi zen Kirol Portuko zineen birmoldatze fasea eta 2011ko irailerako aldaketa garrantzitsuak espero dira. Izan ere, zinearen beheraldi ekonomikoak zein Cinesa enpresak Bizkaian egindako sarrera dela-eta, Kirol Portuko zineak kudeatzen dituen Getxo Zinemak enpresak, aisialdi eskaintza aldatzeko beharra ikusi du, hori zinema ereduaren bideragarritasuna bermatzeko bide bakarra dela uste baitu. Aldaketa hau, Kirol Portua aurrera errotan ari den estrategia globalaren barruan kokatzen da; 2008tik %40 jaitxi dira Kirol Portuko diru sarrerak.

Etenbako digitalizazioa eta 3D sistemaren ezartzea izan ziren estrategia barriaren lehen pausok. Horrez gain, ezohiko ekintzetarako aretoak zabaldu

zituzten eta goiko pisuko taberna urtebetzeak ospatzeko erabilgarri jarri zuten. Zineen aurreko plaza konpondu eta gozoki denda barria jartzea izan ziren azken pauso biak.

Ekaina hasieran, beheko solairuko lau areto itxi eta horietako lau diskoteka bihurtzeko lanak hasi ziren; iraileko bigarren hamabostaldirako amaitzea aurreikusten da. Zuzeneko musika emanaldiak hartuko ditu dikostekak, nahiz eta ez duen bere jarduna musikaren esparrura mugatuko. Komiko eta bakarrizketagileak eta opera, futbola eta foruma 1 emanaldiak antolatuko dituzte. Itxiko diren gainontzeko sala bietan dantza eskola zabaltzea aurreikusita zegoen, baina proiektuak ez zuen aurrera egin; oraindik ez dute erabaki bertan zer egin. ○

BANDERA URDINAK EREAGAN ETA AZKORRIN

Ereaga eta Azkorri-Gorrondatxe hondartzek lortu dute ostabere ADEAC-FEE Ingurugiroko Hezkuntzako eta Kontsumitzaileen Elkartek emandako bandera urdina. Euskal Autonomia Erkidegoan hiru eman dituzte, Getxoko biak eta Eako hondartzari emandakoa. Espainiar Estatuko hondartza eta portu jasagarriei, ingurugiroa eta natura errespetatuz, itsasertzen eta hondartzen gestioan egindako ahaleginatik ematen zaie ikur hau. Bandera urdina, uraren kalitate ona, garbitasuna, informazioa, ingurugiro hezkuntza, segurtasuna, zerbitzuak eta instalazio baldintza zehatzak betetzeagatik ematen da.

NABIGATZAILEEN EGUNA EGUENETAN OSTABERE


Ekainaren etorreragaz, Turismo Bulegoak, udalerriko bela enpresen laguntzagaz, *Osteguna, Nabigatzaileen Eguna* programa abiatu du, belaontzian ordu biko urteerak eskaintzeko. Iraila bitartean, eguenero egingo dira urteerak eta pertsona bakoitzeko prezioa 30 eurokoa izango da. Aldez aurretik ez da erreserba egin behar eta elkargunea Kapitaintza Eraikinean izango da, eguenetan 16:45ean. *Osteguna, Nabigatzaileen Eguna Euskal Kostaldean* programaren barruan kokatzen da eta horrek belaontzian iraupen, ibilbide eta salneurri ezberdineko beste urteera batzuk ere eskaintzen ditu.

Info+: 944 910 800 / infoturismo@getxo.net

M-15 MUGIMENDUA GETXON ERE BAI

Oihartzun handia izan duen M-15 mugimendua Getxon antolatzen hasi zen ekaina hasieran. Areetako Xake Plazan egin zuten lehenengo asanblada. Bizkaiko Arriaga plazako kanpaldiaren inguruan eratu den asanbladaren babesa du Getxokoak eta Hartu Bizkaia! ekimenaren barruan kokatzen da. Eurekaz harremanetan jartzeko getxom15masanblada@gmail.com helbidea jarri dute martxan.

Etxeart
Eraikuntza / Barrikuntzak
Zurezko Egiturak



Sagastikoetxe Industrialdea
Etxalde 2 - Pabiloi 11
48630 Gorliz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 946 773 144



<http://www.etxeart.com>

K. Euba, I. Arribilaga, A. Zamorano > Teknoskopia lehiaketako irabazleak

“Proiektu hauen bidez gura dugulako ikasten dugu, ez gaitu irakasleak behartzen”



Koro Euba, Iratxe Arribilaga eta Ainhoa Zamorano San Nikolas Ikastolako ikasleak dira

Azken hileotan sariak jaso eta jaso dabilta San Nikolas Ikastolan. Bertsolaritza, literatura... hainbat arlotan gazte trebeak direla erakusten ari dira. Koro Euba, Iratxe Arribilaga eta Ainhoa Zamorano DBH 4. mailako ikasleak zientzialari finak izateagatik jasotako sariagaz agur esango diote aurten Ikastolari. Tutoreak animatuta aurkeztu ziren Elhuyar Fundazioak antolatutako Teknoskopia sarira; sare neuronal bat simulatzeko egindako proiektuagaz lortu dute net book-a eta Teknalia ezagutzeko aukera; hala ere, bizitako esperientzia izan da eurentzat sari nagusia.

—Zergatik hasi zineten proiektuagaz?

—Gure tutoreak e-posta bidali zigun Teknoskopia lehiaketaren barri emanez; bazekien zientzia arloan interesa genuela eta aurkeztea proposatu zigun.

—Zelan erabaki zenuten zer egin?

—Garunaren inguruko lan bat egin gura genuen, arlo hori betidanik interesatu zaigulako; nahiko kuriosoak gara.

—Zertan datza proiektua?

—Gure erronka artzain-jokoan (“3 en raya”) lerroa eginda dagoen ala ez erantzungo digun sare neuronal simulatzea

zen. Horretarako, lehenengo arlo teorikoa landu dugu, biologikoki gertatzen dena. Ondoren, alde praktikora pasa gara eta matematikaren bidez hori imitatzen saiatu gara; biologian gure neuronak gertatzen dena matematikoki azaldu dugu. Google docs-en kalkulu orriak erabili ditugu horretarako. Hori da ideia orokorra, gutxi gorabehera.

—Ikastolan ikasitakoa nahikoa izan da proiektua aurrera eroateko?

—Ikastolan Google docs ezagutu genuen, baina ez genuen esparrua gehiegi landu.

Proiektu honeguz gure kabuz landu dugu.

—Zer da gehien gustatu zaizuena?

—Ikasitakoa. Aurkeztu ginenean oso zaila ikusten genuen dana, urrun ikusten genuen horrelako ezer ulertzea. Orain badakigu uler dezakegula eta zerbait berria ikastea lortu dugu.

«Gure neuronak gertatzen dana matematikoki azaltzen saiatu gara»

—Zer esaten dizute ikaskideek?

—Euren aurrean proiektua azaltzen saiatu gara, baina ez dute ulertzen. Prozesua ulertzeko denbora behar da. Guri ere hasieran 10 minututan ulertzea zaila egin zitzaigun; bost hilabete behar izan ditugu dana ulertzeko. Baina, amaieran ikusi dugu posible dela ulertzea eta ikastea.

—Proiektuagaz jarraitzeko asmorik?

—Bai, azterketak amaitutakoan eta denboraz saiatuko gara amaitzen. Ikusi dugu guk sortu genuen sareak ez duela guk bilatzen genuena lortzeko balio; horregatik, sare konplexuago bat sortzea pentsatu dugu. Beste geruza bat sartuko diogu, lerroak identifikatu ahal izateko. Gure garuna oso konplexua da.

—Saria irabaztea espero zenuten?

—Egia esan ez geunden oso konbentziturata. Beste taldeen aurkezpenak ikusi eta maila handia zegoela iruditu zitzaigun.

—Ikaskideak lehiaketan parte hartzeraz animatuko zenituzkete?

—Bai. Proiektu hauen bidez gura dugulako ikasten dugu, ez gaitu irakasleak behartzen. Askoz hobeto barneratzen dugu eta amaieran: dana nik bakarrik ikasi dut, gura dudalako. Gaia ere norberak aukeratzen du eta lana nahiko boka-ziozkoa da. Betiko geldituko zaigun esperientzia izan da. ○

Blues-a eta gero Jazz-a

Uztailaren 1etik 5era Algortako Biotz Alai eta Geltokia plazetan izango da Jazzaldia



Chucho Valdés abeslari kubatarra entzun ahal izango duzu uztailaren 4an

Uda giroak tronpeta eta saxofoi soinua dakar Getxora. Ekainean Blues Jaialdiak eman zion hasiera udako kontzertu sortari; uztailaren 1etik 5era Getxoko XXXV. Nazioarteko Jazzaldiaren txanda izango da. Urtero lez Algortako Biotz Alain izango dira ordaindu beharreko kontzertuak eta Geltokia plazan doakoak. Sarrerak salgai daude daborduko BBK-ren orotariko kutxazainetan, 944 310 310 telefono zenbakian, www.bbk.es webgunean eta Algortako Kultur Etxean.

Geltokia plazan 19:00etan izango dira *Hirugarren milurtekoa* atalaren barruko kontzertuak. Evgeny Ring Quartet

eta Manel Camo Quartet entzun ahal izango dira bertan, besteak beste.

Biotz Alain 21:30ean hasiko dira emanaldiak. Egunero egongo den lehiaketaz gain, Aki Takase New Blues Project, Lee Ritenour Band, Dave Holland Quintet, Chucho Valdés & The Afro-Cuban Messengers eta Brandford Marsalis Quartet taldeak izango dira izarrak.

Horrez gain, kalejirak egongo dira bost egunetan zehar. The Piper's Irish Puben Jam Sessiona egingo dute Jon Urrutia Band-en eskutik eta Satistegin argazki erakusketa ikusi ahal izango da. ○

Info+: www.getxo.net/jazzgetxo

UDAKO LIBURUTEGIAK BIDEZABAL ETA AREETAN

Ekainaren 29an abiatuko dituzte Bidezabalako Borobia plazako eta Areetako Geltokia plazako udako liburutegiak edo letren terrazak. Bertan, bi hilabetez hurrek zein helduek liburuakaz gozatzeko aukera izango dute 11:30etik 13:30era eta 17:30etik 20:30era. Eleberriak, ipuinak eta komikiak eskainiko dituzte, besteak beste. Guztira 2.100 ale izango dira erabilgarri, aldizkariak eta eguneroko prentsagaz batera. Hurrek, antolatuko diren eskulan eta tailerretan hartu ahal izango dute parte. Uztailaren 11tik aurrera, Algortako Geltokia plazako liburutegia ere erabili ahal izango da.

LUDOTEKA UDAN ETA DATORREN IKASTURTEAN

Ekainaren 24ra bitartean aukera egongo da 2011/12 ikasturterako Areetako Ludoteka erabili ahal izateko izena emateko epea. Interesatuak Herritarrentzako Arreta Bulegotan egin beharko dute. Datorren ikasturterako barritasun nagusia, Ludotekak zapatu arrastian ere zerbitzua emango duela izango da. Astelehen, eguazten eta barikutan 5-6 urteko umeak egon ahal izango dira arrastiz, martitzen eta eguen arrastian 7-9 urte bitartekoak eta zapatu goizetan 10-11 urtekoak. Bestalde, ekainaren 24tik irailaren 2ra, bazkideak zein bazkide ez direnak sartu ahal izango dira, alde aurretik izen-ematea egin barik eta kuota ordaindu barik. Espazio arrazoiak tarteko, behin plazar betez gero, ezin izango da ume gehiago sartu.

GOGORATU: BALKOITIK BALKOIRA 24AN!

Aurreko UK-ko agendan informazioa eman genizun, baina badaezpada diotsugu. Izan ere, bertso zaleentzat zita garrantzitsua da ekainaren 24an 22:00etan Portu Zaharreko Etxetxu plazan dagoena. Aurtengo, Balkoitik balkoira bertso saioan Angel Peñagarikano bertsolari mitikoa eta Julio Soto Nafarroako Bertso Txapelketako irabazlea izango dira. Gozatu!

lagusana
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
lagusana@lagusana.net

[leioa]

Leioako Jai Batzordea

“Jai herrikoiak eta parte-hartzaileak gura ditugu, ez enpresa batek antolatutakoak”

Aurten sortu da Jai Batzorde barria Leioan eta San Juan jaien testuinguruan egin dute lehen ekitaldia. Gogotsu hasi dira lanean eta bestelako jaialdiak ere antolatu gura dituzte Gabonetan, inauterietan e.a. Gaztegunean elkartzeko dira eguenero.

—Jai Batzordea sortu duzue, nolatan?
—Azken lau urteetan Udaletik arazoak izan ditugu San Juan jaietan, adibidez, ordutegiak zirela-eta; behin koadrilen jai-tsiera bertan behera utzi zuten Basauriko gertaera baten ostean. Horren aurrean zer edo zer egiteko beharra ikusi genuen koadrilek, ez Udalaren aurka, baizik eta gura genuen jaien alde. Jai herrikoiak gura ditugu, ez enpresa batek antolatutakoak. Udalak antolatzen zituen beti jaiak eta guk ez geneukan zer esanik. Leioako Koadrilak Gazteen Elkartearen sortu zen eta ondorioztatu genuen zerbait gehiago behar zela. Hortik jaio da Jai Batzordea.
—Udalak antolatzen ditu sanjuanak, egitarauaren diseinuan parte hartu duzue, zer harreman duzue Udalagaz?
—Ohiko legez jaiak Udalak antolatu ditu, eta barriki sortuta, guk eragin gutxi izan genezakeen aurtengo programan. Baina luzerako ikuspegia daukagu, eta



Herriko gazte koadrilek sortu dute Jai Batzordea

orain arte, Udaletik ez dugu jaso ezezko-rik. Datorren urteari begira gure asmoa da jaietako egitarauaren parte bat antolatzeko, eta apurka, zati hori zabaltzea. Jakin badakigu sanjuanak jai handiak direla eta hasiberriak gurea, baina jaiak herritarrok antolatzea da helburua.
—Dena dela, sanjuanen testuinguruan ekimen bat egin duzue aurten.
—Sanjuanen aurreko asteburuan egin dugu lehen ekimena, pintxo lehiaketa

eta Antzineko Eguna, ekimen hori orain arte antolatu dutenak batera. Hurrengo sanjuanean begira Jai Batzorde herrikoia aldarrikapena izan da, abiapuntua. Gainera, Lonjero Eguna egin gura dugu, eta ekitaldiak antolatu Gabonetan, inauterietan zein sanjuanetan. Eguenero elkartzeko gara eta datozen guztiak entzuteko prest gaude, Jai Batzorde parte-hartzaile eta herrikoia baikara. ○

Bizikletak ez soilik udarako

Udalak eta Emaus kooperatibak **bizikletak alokatzeko zerbitzua** abiatu dute



Getxoko zerbitzuagaz bateragarria izango da alokairu sistema

Oraindino ez dago bidegorri tarte handirik Leioan, baina Udalak bizikletak alokatzeko zerbitzua abiatu du Emaus kooperatibagaz lankidetzan eta hemendik aurrera urte osoan alokatu ahalko dira bizikletak.

Hirurogei txirrindula prestatu dute, denak identifikatzen oso errazak. Alokairuan hartzeko lau gune izango da: Artatza auzoan, Amaia etorbidean, Leioa metro geltoki parean eta Sakoneta kiroldegian. Bertan kokatuko dituzte informazio puntuak, “erabiltzaileek dituzten zalantza guztiak argitzeko”.

Ukituzko pantailak dira, bertan erre-serba daiteke bizikleta. Modu horretan, alokairuzko zerbitzua martxan izango da

eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan.

Txirrindulak kontrolpean edukitzeko giltzarra izango dute, eta beraz, kontrola informatikoa izango da. Gainera, bizikletak uneoro kontrolatuta edukitzeko gps sistema daramate.

Alokairu sistema hau Getxoko zerbitzuagaz bateragarria izango da. Ondorioz, Getxoko bizikletak Leioan utzi daitezke eta alderantziz, “herri bien bidegorrien bitarteko lotura sustatuz”.

Udaleko Gizarte Zerbitzuak eta Enplegu sailak elkarlanean hautatuko dituzte zerbitzuan lan egingo duten herritarrak, “betiere lan munduratzeko arazoak dituztenak”. ○

NARRAZIO LEHIAKETAKO IRABAZLEAK

Dagoeneko aditza eman dituzte *Gaztea nintzenez* lehiaketaren irabazleak. Lau maila egon da sariketa honetan eta ondokoek irabazi dute: A mailan lehenengo lotu da Jonatan Vargas Caño eta bigarren Jasone García Arginzona; B mailan Ainara Ortega Barrenetxea eta Eder Azaola Díaz; C mailan Rosa Aliaga Ibáñez eta Lourdes Aso Torralba; eta D mailan, Emma García de Diego eta Fernando Aguirre Madariaga. Gaztetan saria José Serna Andrések eskuratu du. Aurten 78 kontakizun aurkeztu dute lehiaketara.

IKASTAROA NEGOZIOA IPINIKO DUTENENTZAT

Herrian negozio barria ipini gura dutenentzako ikastaroa emango du Behargintzak uztailaren 11tik 22ra. Enpresa egitasmoak sortzeko aholkularitza eskainiko dute negozio-plana eraikitzeko helburuagaz; 30 orduko ikastaroa izango da eta hiru modulu izango du. Negozio modulan landuko dituzte forma juridikoa, baimenak, lizentziak, finantzaketa eta laguntzak, eta lan-arrikuak zein ingurumenekoak, besteak beste. Finantzaketa modulan, barriz, iturriak eta motak, eta kobrantzen zein ordaintzen kudeaketarako tresnak. Azken modulua izango da Tributazioari dagokiona. Behargintzan bertan eskainiko dute informazio gehiago.

Behargintza: Mendibile kalea, 3

THE WEDDING ERAKUSKETA UZTAILEAN

Ezkontza *The Wedding* erakusketa abiatuko dute Kultur Leioan. Egileen ustez, jendarte teknologiko eta globalizatzailean ezkontzek pertsonen alde arin eta hutsala ipintzen dute agerian: “Beste jai bat bihurtu da, gainbehera datorren irudia, aspaldiko errituaren balio berezko eta espiritual galduta duen glamour mota”. Ekainaren 30etik uztailaren 24ra arte ikusi ahalko da.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA



Basarrate 20 lonja 48991 (Alqorta-Getxo) Tf. 94 404 91 65 - 656 70 31 61

- Psikopedagogia eta Eskola Orientazioa
- Ikaskuntzaren zailtasunak (idazketa, irakurketa, ulermena, dislexia...)
- Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza



Luberr Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Blzkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net
www.luberr.biz

- Soropila ezartzea
Lurzorua prestatzeko lanak, drainatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.
- Seropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.
- Inausketak
Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inauterietan, erabateko inausketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

[erandio]

Santi Neira > gida turistikoa

“Erandio herri garrantzitsua izan da ontzigintzan eta industrian, hori transmititzen dugu bisitaldietan”

Erandio ezagutzuz egitasmoaren baitan egin dituzte bisita gidatuak azken urteotan herriko hainbat auzotan eta Santi Neirak gidatzen ditu horietako batzuk. Bitxienetakoa da itsasadarrekoa, gasolinoan egiten baitute ibilbidea; azkena izango da ekainaren 25ean.

—Herriko ondarea ezagutzera emateko bisita gidatuak egiten ditu Udalak.

—Erandioko ondarea herriari aurkezteko eta bultzatzeko egiten ditugu, Erandioigoiko Andra Mari eliza eta Martiartu ezagutarazten ditugu, eta gasolinoan itsasadarra. Erandio nekazaria, Erandio historikoa eta Erandio industrialak erakutsi ditugu. Azken hori erakusteko erabaki genuen gasolinoan erabiltzea. Itsasadarrekoa izango da azken bisitaldia, ekainaren 25ean eta nik gidatuko dut. Egitasmoa ekaina bitartean izan da, ez dakit hemendik aurrera egiten jarraituko duten.

—Itsasadarrean zehar zer erakusten duzu?

—Normalean Portugaleteko zubiraino joaten gara, buelta hartu eta Bilboko Arriaga Antzokira arte joan eta Erandiora itzultzen gara. Industria, ontzigintza eta meatzaritzaz jarduten dugu,



Ekainaren 25ean da denboraldiko azken bisita itsasadarrean

hau da, itsasadarren historia osoa kontatzen dugu. Ez dugu Erandioz bakarrik hitz egiten, baina nabarmentzen dugu. Ontzigintzan eta industrian Erriberako herri garrantzitsua izan da eta transmititzen saiatzen gara.

—Nongoak dira bisitariak?

—Normalean erandioztarrak izaten dira, baina kanpotik ere badator jendea, Bilbotik esaterako. Han horrelako bisitak kobratzen dituzte eta bilbotar asko dator. Arrakasta handia daukate itsasa-

darreko bisitaldiek, lepo betetzen dira eta itxaron zerrenda daukate. Jendeak interes handia dauka, Erandiori buruzko informazio gehiago, zehatza eta ona eskatzen dute; ez dira nekatzen eta oso adi daude. Itsasadarra asko aldatu da, garbiago dago eta umeek ere asko gozaten dute; bisita polita da. Azken hiru urtetan gidatu ditut bisitak eta Udalak egitasmoagaz jarraitzea espero dut; Takolos Radio Klub elkarteak behintzat, egin egingo ditugu. ○

Bonotaxia izango dute gune aldenduetan bizi eta mugikortasun arazoak dituztenek 2012an, doan



Administrazio tramiteak gainditu ostean abiatuko dute zerbitzua

Mugikortasun arazoa daukaten eta herriko gune aldenduetan bizi diren erandioztarrentzako doako taxi zerbitzua ipintzeko asmoa dauka Udalak datorren urterako, Arrizen Monasterio zinegotziak iragarri duenez. Zehazki, diru-laguntza emango diete garraio publikorako sarbide arazoak dituzten herritarrei: nagusi, elbarritu zein eskola-umeei.

Laguntzak behar zehazterako izan daitezke, barbarako, medikuaren kontsultara joateko, edota aldian-aldiko beharretarako, herriko gune aldenduetan bizi diren eta eskolara joateko garraio publikorik ez daukaten umeentzat, adibidez.

Zerbitzua jasotzeko hainbat baldintza bete beharko dute herritarrek. Oraindik ez dituzte zehaztu, baina besteak beste, baloratuko dituzte minusbalio eta dependentsia maila, eta egoera ekonomikoa.

Esan bezala, zehazteke daude baldintza zehatzak, izan ere, administrazio-bideratzea konplexua da. Zerbitzua indarrean sartu aurretik udal-ordenantza egin behar dute, diru-laguntzak eskatu eta partaide guztiakaz bildu behar ei du Udalak. Bertatik diotenez, Erandioko minusbaliatuen elkartearen ikuspuntua jaso gura du bate-tik, eta taxi gidariak egitasmoa erakarri bestetik. ○

JAIK ERANDIOGOIKOAN ETA KUKULARRAN

Ekainak azkenak egingo ditu eta uda iritsi da! Merezitako ongi etorria egingo diote Erandion, izan ere, auzo bik jaiak ospatuko dituzte San Juan suaren inguruan, Erandioigoako eta Kukularrak. Ekainaren 23tik 26ra izango dira Erandioigoako Gorpuzti jaiak, 24tik 26ra Kukularrakoak. Arrastiko 19:00etan jaurtiko dute txupina azken horretan, eta ondoren, igel-toka txapelketa eta sardina-jana egingo dituzte. Dantzaldia ere eskainiko du Biotz Alai taldeak 21:00etatik aurrera. Zapatua 25ean umeentzako parkea ipiniko dute goizean eta Paella Txapelketa egingo dute nagusiek. Moto GP II. Sari Nagusia 18:30ean hasiko da eta kontzertua 22:00etan. VaniShine eta Elexceso taldeek joko dute. Baina domeka arte luzatuko da jaiak. Goizean egingo dute Tortilla lehiaketa eta arrastean Mus eta Tute Txapelketak. Patxi Magoak ikuskizuna eskainiko du 18:00etan, eta 20:00etan amaituko dira aurtengo jaiak.

ASTIALDIAREN TXOKOAK UZTAILETIK AURRERA

Irakurketa txokoak abiatuko dituzte uztaileguz batera Erandion, Astrabuduko Josu Murueta plazan eta Altzagako Iraileren 23a plazan. Astelehenetik barikura zabalduko dituzte umeei zuzendutako guneak, 11:30etik 14:00etara eta 17:30etik 20:30era.

ATHLETIC CACHORROS PEÑA BARRIA

Athletic zaleek kirol-lagunarte barria izango dute udatik aurrera, izan ere, Athletic Cachorros lagunartea inauguratuko dute ekainaren 24an, Astrabuduan. Auzoari aurkeztu gura diote eta arrasti pasa antolatu dute aurkezpenaren ostean Josu Murueta plazan. Umeentzako puzgarriak ipiniko dituzte 17:30etik aurrera eta 20:00etan ohorezko aureskua dantzatuko diete Athleticceko jokalariei eta zuzendaritzak taldeari. Ondoren, dantzaldia egingo dute.

Garaizar
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Ileta kalea 1 • ALGORTA

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?



Etxebizitarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

IGOGAILUAK
ARLAN
ASCENSORES

Arazoei agur... **Tf. 902 54 08 54**

www.arlan.biz

SKATEAREN EGUN HANDIA, EKAINAREN 25EAN!

Bosgarren urtez, Skate Eguna antolatu du Sopelako Udalak ekainean. Aurten 25ean ospatuko da, jaiak hasi baino asteburu bat aurrerago. Zipiriñe eskolako patioan egingo dira ekintza guztiak: goizeko 11:30etik 13:30era tailerra izango da. Arrastian, barriz, txapelketaren txanda helduko da 16:00etatik aurrera eta horren ondoren, erakusketa 20:00 arte. Eguna amaitzeko, sari banaketa egingo dute. Ez galdu aukera!

SANJUANETAN, SUA URKO BAZTERRETAN!

Urtero legez, urteko gaurik laburrenean jaitxo ospatuko da Urkon. 22:30etik aurrera, San Juan sua piztu eta txokolatada herrikoia egingo da. Sua pizteaz gain giroa ere pizteko asmoz, "Spectrum" animazio ikuskizuna egingo da ikusgai.

ITZARTU ETA ZIPIRIÑEKO ANTZERKI EMANALDIK

Urtean zehar Sopelako antzerki taldeek egindako lanaren fruituak ikusteko aukera egingo da Kurtzion. Zipristin antzerki taldeak, esaterako, ekainaren 24an 19:30ean eskainiko du bere emanaldia. Zipiriñe eskolako lagunek hiru lan aurkeztuko dituzte: "Antzezten peketen ten", "El cisne negro" eta "El club de la comedia". Itzartu antzerki taldeak, barriz, egun bat beranduago hartuko du lekukoa, 20:00etan. "El banquete de Agatona" da aukeratu duten lana.

"KUBA: UHARTE SOLIDARIOA" ERAKUSKETA

Internazionalismoa jorratzen jarraitzen dute Plaza Beltza Kulturguneko lagunek. Ekainaren 20tik 29ra "Kuba: Uharte solidarioa" erakusketa antolatu dute, eta ekaina akabuan, Kolonbiari buruzko jardunaldiak. Ekainaren 23an, barriz, "La dimensión de las palabras" dokumentala proiektatuko da.

Jaiak hasteko gogoz! Erromeriak, bertsoak, herri-bazkaria... giroa egongo da ekainaren 28tik uztailaren 3ra!



Udaletxe plazan eta txosnagunean egingo dira ekitaldi gehienak

Aitxu! euskara taldeak botako duen txupinak emango die hasiera aurtengo San Pedro jaiet. Bai Udalak bai Jai Batzordeak antolatu duten egitarauari esker, ekitaldi ugari izango dira ekainaren 28tik uztailaren 2ra arte. Jaiak hasi eta berehala, koadrilek jaitxiera egingo dute 20:30 aldera txosnetaraino. Bertan, ohikoa den txosna apainketa txapelketa izango da. Ekainaren 29an 'Zazpi astoren ganean' bertso ikuskizuna izango da. Hurrengo egunetan, beste hainbat ekimen antolatu dituzte: binakako esku-pilota finala, tortilla txapel-

keta, 'Mis Ovarios 33' antzerkia, uztailaren 2ko herri-bazkaria...

Kontzertuei dagokienez, adin eta gustu askotarako emanaldiak izango dira. Ekainaren 29an Trikiño txosnetan eta Korrontzi udaletxe plazan; 30ean talde lokalak eta Zea Mays txosnagunean; uztailaren lehenengo egunean talde lokalak eta La Kinky Beat; uztailaren 2an Gora Herria txosnagunean eta Canteca de Macao talde ezaguna udaletxe plazan. Jaiet amaiera emateko ska pintxada izango da, DJ-en eskutik. Ondo pasa, baina ez pasa! ○

Lorea Burges > Euskadiko Plataforma Animalistako kidea

"Jaiotzen den animalia kopuruarentzat egun ez dago jende arduratsu nahikorik"



Hitzaldia antolatu dute ekainaren 27an, 19:00etan Kurtzion

Oporretan joateko momentua iritsi, eta urtero hainbat jabe txakurra errepidean uzteko 'ohitura' du. Besteak beste, gai hori izango dute mintzagai ekainaren 27an Kurtzion, Lorea Burges Euskadiko Plataforma Animalistako kidearen eskutik.

—Hitzaldian jorratuko duzue, udan animalia gehiago abandonatzen dira urtero... zer dela eta?

—Hitzaldia emateko arrazoi nagusi bi ditugu. Alde batetik, egun Eusko Legebiltzarrean animalien babeserako legea eztabaidatzen ari dela, egungoa orain dela hamazazpi urte idatzi baitzuten. Eta bestetik, udan abandonatutako animalien kopuruak gora egiten duela. Azkenean hori icebergaren tontorra baino ez da, puntu horretara zelan iristen garen aztertu gura dugu.

—Zelan heltzen gara egoera horretara?

—Zoritxarrez animalia asko jaiotzen da, baina ez dago jende arduratsu nahikorik animalia horietaz kargutzeko. Hiru

urrats nagusi zehazten ditugu. Hasteko, animalien jaiotzak kontrolatu behar dira, eta egun hori ez da egiten. Gero, jendearen pentsaera aldatu behar da. Arduratsuak izan behar dugu: jakin behar dugu animaliek kostuak dituztela, oporretan ezin garelako edozein lekutara joan... Eta azkenik, erosi beharrean adopzioaren aukera dugu.

"Txakurtegi askori kaiolak hutsik izatea interesatzen zaio, negozioa egiteko"

—Erakundeen jarduera zelan baloratzen duzue?

—Orohar ez da positiboa. Udal gehienek enpresa bat kontratatzen dute animaliak erditik kentzeko. Legeak animaliak sakrifikatzeke aukera uzten du. Txakurtegiek txakur bat jasotzen dutenean dirua jasotzen dute, eta kaiolak hutsik izatea interesatzen zaio txakur gehiago jasotzeko eta negozioa egiten jarraitzeko. ○

Info +: www.somosvuestrasvoces.org



EGUNKARIAK prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero, etxera eroango dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

DIDAK hAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA iKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

Ivan Corcuera > Merkatarien Elkarteko presidentea

“Udalagaz komunikazioa hobetzea eta auzoen artean dagoen fragmentazioagaz amaitzea da gure helburua”

Azken urteetan biztanle kopurua biderkatu duen arren, Berangok ez du komertzio kopurua biderkatu. Are gehiago, dendarri txikiak gero eta zailtasun handiagoak dituzte bizirauteko. Indarrak batzeko helburuagaz, Merkatari Elkartea sortu barri dute Berangoko hainbat komerziok.

—Zer dela eta erabaki duzue Merkatarien Elkartea sortzea?

—Ideia mamitzen hasi ginen orain urte bat gutxi gorabehera. Udalak jardunaldi batzuk antolatu zituen, eta bertan hainbat ideia proposatu ziren Berangoko merkataritza berpizteko. Jardunaldi horietan 30 bat komertzio egon ginen eta ideia-jarioa egin genuen. Bertatik komertzio gida bat eratu genuen, eta hurrengo ideia Merkatari Elkartea sortzea zen. Ideia horregaz aurrera egin dugu eta orain dela hilabete bat elkartea gorpuztu dugu.

—Elkartea zenbat kidek osatzen duzue egun?

—Oraintxe 12 kide gaude, baina espero dugu komertzio gehiago batzea, batez ere ekimenak antolatzen hasten garenean. Gainera hainbat deskontu lortzeko aukera izango dute, erosketa-gunea sortuko dugu, aholkularitza... Udalagaz harrema-



Hurrengo ikasturtean ekimenak antolatuko dituzte: azokak, jaiak...

netan jartzeko ere indarrak batzeko balioko du.

—Zeintzuk izango dira elkarte barraren helburu nagusiak?

—Alde batetik, Udalagaz komunikazioa hobetzea, eta Berangon auzoen artean dagoen fragmentazioagaz amaitzea. Berangon auzoak oso sakabanatuta daude: Sabino Aranan, Axganen... Bestalde, urtean zehar hainbat ekimen antolatuko asmoa dugu: aratusteetan, gabone-

tan, azokak antolatu... Oraindino ez dugu zehaztu ekintza zehatzik, elkarteko paperakaz gabiltzalako. Hurrengo ikasturteari begira antolatzen hasteko asmoa dugu.

—Osasuntsu dago Berangoko merkataritza?

—Konplexua da, lehen esan dudan bezala herriak gune ezberdinak dituelako. Berangon batik bat betiko dendariek jarraitzen dute. ○

Enriqueta Sesmero > Historialaria eta artxibozaina

“Erregearen alde egon beharrean, eskualdea karlismoarekin zegoen”



Sesmeroren hitzaldia uztailearen 6an izango da, 20:00etan Goñi Portalen

Plentziako Tokiko IV. Historia Jardunaldiak uztailearen 6tik 8ra izango dira aurten. 1868 eta 1936 urteen arteko gertaerak izango dituzte hizpide, eta Enriqueta Sesmero historialari bilbotarrak “III. Guda Karlista Uribe Kostan” hitzaldia eskainiko du.

—III. Guda Karlista izango duzu mintzagai uztailearen 6an. Zer-nolako eragina izan zuen Plentzia inguruan?

—Hasieran karlistek lurralde guztia okupatu zuten eta eskualdeaz jabetu ziren. Plentzian bazeuden liberal batzuk, baina batik bat kapitainak eta marinela ziren eta kanpoan zeuden, eta beste batzuek ihes egin zuten. Ez zen, beraz, bataila handirik gertatu. Eskualdea hornikuntza-gune legez erabili zuten.

—Eskualdeko herritarrak, beraz, karlismoaren alde agertu ziren. Zer dela eta?

—Laborri esanda, uste dut jendeak bere etorkizunaren jabe izan nahi zuela. Hori

lortzea errazagoa zen karlismoarekin liberalismoarekin baino. Hori da nire hipotesia. Baina Don Karlos erregearen alde egon beharrean, karlismoaren alde zeuden. Jendeari ez zitzaion inporta erregea. Foruen aldekoak ziren, eta foruek bizimodu oso bat ordezkatzeko zuten; hori zen defendatzen zutena.

«Elite berriek betiko ohiturak eta bizimodua ahaztu zuten»

Horregatik egin zuten karlismoaren alde, ez konbentziturik zeudelako.

—Nola lotu zen jendartea gerra ostean?

—Gerra eta gero aldaketak arinago gertatu ziren. Sortutako elite berriek betiko ohiturak ahaztu eta beste mota bateko bizimodua hasi zuten: baseritarren kultura eta ohiko bizitza arbuiauz, euskara baztertuz. ○

Info +: www.eusko-ikaskuntza.org/eu



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27. behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



Torre 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratigorta@gmail.com

irati
OPARIAK MODA GAZTEA

COMERCIAL de LIMPIEZA
VILLAR S.A.

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogaria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezavillar.com

BONBILLAK BATZEKO EDUKIONTZI BARRIAK

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak erabilitako bonbillak birziklatzeko edukiontzi barriak ezarri ditu Mankomunitateko herri guztietan. Kontsumo baxuko bonbillak eta fluoreszenteak batzeko aukera egongo da, eta Plentzian izan ezik, gainontzeko herrietan auzokideek edukiontzi bi baino gehiago dituzte eskuragarri.

9 ETXEBIZITZA PREZIO MUGATUAN GORLIZEN

Prezio mugatua duten behe-solairuko bederatzita etxebizitza daude salgai Gorlizen, Andra Mari Axpen. Eskaria egiteko Udaletxera hurreratu beharko da uztailaren 1a baino lehen. Izena emateko hainbat baldintza bete beharko da: Etxebiden izena emanda izatea, Gorlizen eten barik 2008. urteko maiatzetik erroldatuta egotea, etxebizitza baten jabe ez izatea... Epea igaro ostean, etxebizitzak erreferentzia prezioaren arabera salduko dira.

EMAN IZENA TENIS ETA PADEL IKASTAROETAN!

Ez zara sekula tenisean edo padlean aritu? Edo aditua zara kirol bietan? Barrikan maila guztientzako udako ikastaroak antolatu dituzte, Abaroa taldearen eskutik. Tenisa arrastiz irakatsiko dute uztailean, eta goizez abuztuaren. Padel saioak, barriz, goiz eta arrastiz eskainiko dituzte. Izen-ematea 607 669 073 telefonoan edo alvila@euskalnet.net helbidean egin daiteke.

PLENTZIA - GORLIZ

Gaztetxea eta Topalekua, gun ebarri bi gazteentzat



Gorlizko Teresiano eraikina da Gazte Topalekuaren egoitza

Gaztea zara eta ez dakizu non batu beste gazte batzuek? Gorliz eta Plentzian gun ebarri bi dituzu horretarako. Gorlizen, Gazte Topalekuak maiatzaren 27an ireki zituen ateak, eta 13 eta 17 urte bitarteko gaztetxoentzat ekintzak antolatu dituzte. Asteburuan egongo da zabalik: bariku eta zapatuetan 18:00etatik 22:00etara eta domeka zein jaiegunetan, barriz, 18:00etatik 21:00etara.

Plentzian, bere aldetik, Ermitatze Gaztetxearen inaugurazio astea ospatuko

dute uztailaren 1etik 5era. Asteagaz hasiteko gala-poteoa, inaugurazio jaia eta 'euskaraOTea' antolatu dute. Uztailaren 2an *Sagarren Denbora* filma eskainiko dute. Hurrengo egunean asanblada eta afori mexikarra egingo dute gazteek. Uztailaren 4an grafiti tailerraren txanda helduko da, kasu honetan Gorlizen. Asteari txapela jartzeko, umeen eguna ospatuko dute, eta puzgarriak zein txokolatada antolatu dute. Gaztea bazara, baduzu zer egin uda honetan! o

Eka. 20 - Uzt. 4

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 944 911 337

ERAKUSKETAK

ERANDIO

► **Erandioko txokoak.** Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean. Ekainaren 24 arte.

LEIOA

► **Margolari Gazteen lehiaketako koadroak.** Kultur Leioan. Ekainaren 26 arte.

GETXO

► **Irene Linaresen olioak.** Algortako Torrene aretoan. Ekainaren 30 arte.

MUSIKA

LEIOA

► **Sorkun eta Esne Beltza. San Juan jaiak.** Barandiaran Behetxea Ikastetxean. Ekainaren 24an, 23:00etan.

► **Basaki eta Gose. San Juan jaiak.** Txosnetan. Ekainaren 24an, 23:00etan.

► **Baketazo, Estricalla, Ze Esatek! San Juan jaiak.** Txosnetan. Ekainaren 25ean, 23:00etan.

BERANGO

► **Nagusien Etxeko abesbatza.** Elizan. Ekainaren 25ean, 19:30ean.

► **Ipar Poloan eta Sorgiñe.** Lantzarten. Ekainaren 23an, 19:30ean.

GORLIZ

► **San Pedro eguneko erromeria.** Iberren. Ekainaren 29an, 19:00etatik 23:00etara.

SOPELA

► **Zea Mays. San Pedro jaiak.** Txosnetan. Ekainak 30, 23:30.

► **La Kinky Beat. San Pedro jaiak.** Txosnetan. Uztailak 1, 23:30.

► **Canteca de Macao. Jaiak.** Udaletxe plazan. Uztailak 2, 23:30.



info+: ene-naturismo.org

► Lasterketa

Sopelako lasterketa nudista uztailaren 2an

Udagaz batera iritsi da lasterketa nudista. Jantziak erantzi eta goazen korrika! Patxi Ros Saria uztailaren 2an izango da, zapatua, Sopelako Barinatxe hondartzan eta 12:00etan; ENE Euskal Naturista Elkarteak antolatzen du. Parte hartzeko izena eman daiteke posta elektronikoki bidez (carreranudista@ene-naturismo.org) ekainaren 24 arte, edota lasterketa egunean, hasi baino ordu bete lehenago. Helduentzako ibilbideak 5.000 metro ditu, baina umeek ere parte har dezakete, sei maila egongo da. Patxi Ros kirol eta naturismo zaleak sortu zuen lasterketa 1999an, eta 2003an, Patxi Ros Saria izenagaz bataiatu zuen Euskal Naturista Elkarteak, haren lana aitortzeko.

• **Non:** Sopelako Barinatxe hondartzan • **Noiz:** Uztailak 2, zapatua

ZINEMA

BERANGO

► **Betizu izar artean.** Berango Antzokian. Ekainaren 26an, 18:30ean.

PLENTZIA

► **Sagarren denbora.** Gaztetxearen urteurrena. Gaztetxean, uztailaren 2an.

URDULIZ

► **Kameratoia.** Izen-ematea ekainaren 24 arte: www.kameratoia.com.

ANTZERKIA

SOPELA

► **Zipristin antzerki taldea.** Kurtzio Kultur Etxean. Ekainak 24, 19:30.

GORLIZ

► **Ipuin kontaketa.** Teresianon. Ekainak 25, 18:30ean. Doan.

PLENTZIA

► **Kamping Renove.** Astilleron. Ekainak 26, 12:30ean.

► **Tor magoa.** Astilleron edo pilotalekuan (eguraldi txarra eginez gero). Uztailak 1, 11:00etan.

GETXO

► **Memento Ridiccoli.** Andra Mariko La Borobia plazan. Ekainak 29, 18:00etan. Doan.

BESTEAK

SOPELA

► **Hitzaldia: Energia berriztagarriak zure etxebizitzan.** Kurtzio Kultur Etxean. Ekainak 22, 18:30ean.

► **San Juan gaua: Spectrum ikuskizuna eta txokolate-jana.** Urkon, ekainak 23, 22:30ean.

► **Skate Eguna.** Zipirine Eskolako patioan, ekainak 25.

GETXO

► **Umeentzako San Juan sua: bertsoak, dantzak, txokolate-jana etab.** Algortako Telletxe plazan. Ekainaren 23an, 18:30etik aurrera.

► **Bizikleta Martxa eta txistorrada.** La Bentatik Azkorriara. Ekainak 25, 17:00etan hasita.

ERANDIO

► **Argazki emanaldi ibiltaria.** Astrabuduan. Ekainak 24.

► **Bisita gidatuak: Erandio ezagutuz.** Itsasadarra gasolinoan, ontziralekutik. Ekainak 25, 11:00etan.

GORLIZ

► **Gaueko Mendi Ibilaldia.** Iberretik. Ekainak 25, 20:00etan.

► **Perkusio ikastaroa.** Gazte Topalekuan. Ekainak 25, 19:00etatik 21:00etara. Doan.

► **Graffiti tailerra.** Gaztetxearen urteurrena. Uztailak 4.

BARRIKA

► **Jon Deuna Futbol 7 Txapelketa.** Futbol eskolan, ekainak 25ean, egun osoan zehar.

OINUTSIK
KONTSULTA PODOLOGIKOA
Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)


Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

VASA



KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA

BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Pinosolo otzandua

Zuhaitzek eta landareek osatu dute Pinosoloko paisaia orain arte. Inguru txukundu baino harago joan dira eta baso basatia otzandu dute, parke bihurtuz basoaren alde bat. Ibiltokiak zeharkatzen du eremua eserleku, erreka eta urmael dotoreak apainduta, arrain eta guzti. Leioatik Artatza parkera joateko lasterbide da askorentzat. Bidean ikusiko dituzu animaliak eta entzungo txorien kantuak.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Pistolak salgai

Akanpada berezia
Lamiakon

M-15 mugimenduak euskal hiriburuetako plazak 'suminduz' bete ditu azken asteotan. Bortizkeria erabili barik, hainbat aldarrikapen egin dituzte bertara batutakoek. Eskualdera oraindino ez da mugimendua asko zabaldu, baina bestelako 'akanpadak' topatu ditugu. Lamiakon, berbarako, alboan ikus dezakezun 'sumindua' ikus zitekeen maiatzaren 27an, Maskarada egunez, aire konprimituko pistolak saltzen, eta seguruenera merke-merke. Hori izango ote zen lamiak itsasontziak hondoratzeko erabiltzen zuten trikimailua? Behintzat, uda heldu dela aprobetxatuta eta beroari aurre egiteko, oso aproposak izaten dira pistolak. Baina ur-pistolak, noski!

[berbetan]

Bilboko Plaza Barrian lotu gara beragaz eta gutxitan gertatu bezala, goiz jarri digu hitzordua. Goiz esnatu eta lotara goiz joaten den Euskal Herri horretakoa dugu Berbetaneko protagonista; berbakera goxo eta geldoan, abizenean zein begiradan Lapurdiko itsas usaina antzematen zaio Jokin Etcheverriari (Donibane Lohizune, 1979). 32 urteaz bere gaztetasuna zalantzan jarri badigu ere, ezagun egin duten proiektu berrizaila eta zoroek, etengabe sortzen dabiren bihotz gaztea uzten dute agerian. Azken boladan munduan zehar “turista profesionalaren” papera egiten ikusi dugu. Hurrengo urtean euskalkiak ardatz izango dituen pantaila handirako proposamen barria aurkeztuko du. Hemen ala han, baina kapela buruan.

Jokin Etcheverria

Kapela buruan eta ibili munduan

Testua: **Maitane Nerekan** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—My Jok enpresagaz hasi, diseinu munduan eta arropa egiten; ondoren, EITBko burp telebista saioak egin zintuen ezagun. Zelakoa izan zen prozesu hori?

—Proiektuak aurkeztu ditut momentu batez eta momentu batez nire proiektuak egiteko espazio bat izan da. Nik lan egiten nuen eta lan egiten dut Euskal Kulturaren Erakundearekin. Egin nuen BURP bideo bat erakusketa batentzat, gero aurkeztu nuen ETBn eta ezetz esan zidaten. Baina hasi nintzen bidaia saioa egiten; haiek deitu zidaten. Orduan joan naiz Britainiara eta Turkiara. Gero egin dut beste BURP bigarren bideo bat. Ni konbentzitu nintzen BURPek bazuela bere etorkizuna Euskadin. Bigarren bat egin dut pixka bat aktualizatuz.

—Orduan, bideoak aurkeztu eta aurkeztu ibili zinen onartzea lortu arte...

—Bai. Kar-kar. Irabazi arte! Gero saldu dugu BURP My Jok eta egin ditugu 73 saio. Bidaia saioa ere jarraitu dut egiten.

—Nondik heldu zitzaizun BURP egitasmoa sortzeko ideia burura, ez baita saio oso arrunta...

—BURPek Baque Underground Report

esan nahi du. Hasi ginenean erakusketa egiten guk bagenuen gure umorea, berezia. Egin genuen esperientzia Iparraldean eta ikusi genuen gazteekin kristoren feedback-a egon zela. Adibidez artzain batek egin zuen kontzertu bat bere ardientzako.

—Baina hori zuek eskatuta ala natural egin zuen artzainak?

—Haiekin hitz egiten genuen, ekintza batzuk sortzeko baina zentzu batekin; ez Jackass moduan. Horrela hasi zen. Lehenengo 26 minutuko pieza bat egin genuen; gero hasi ginen telebista proze-

su batekin. Gure BURPa profesional bihurtu zen. Buelta bat eman genion gure BURPari posibilitatea ukaiteko formatu hori egiteko astero urte batez. Orduan, bat-batean bagenuen gure BURP taldea, editoreak, kamerak, agenda nahiko zehatza... hori posible egiteko. —Modernitatea eta ziria ezin zaiola

erdarari utzi esan zenuen elkarrizketa batean. Baina, erraza da modernitatea euskaldunokin lantzea?

—Nik ez dut BURP moderno bezala defendatzen. Bazuen bere ukitu ezberdina euskararen munduan eta, uste dut, horretarako sortu genuela proiektua. Ni pozik naiz horrelako lan bat egiteagatik, izan delako gauza oso berria mundu euskalduneari. Hori zen ideia. Modernoa, eroa, bitxia...

—Zelan erantzun zuen jendeak?

—Bazen denetarik. Ideia zen publikoa probokatzea eta dena egin dugu jendea

“Nik ez dut BURP moderno bezala defendatzen; bazuen bere ukitu ezberdina euskararen munduan”

izateko “super-fan” edo esateko “gorroto dut BURP saioa”. Hori zen gure helburua. Hori planteatu genuen ere telebistarekin. Gero proiektu hori egin nahi izan da gazteentzat, inportantea da hori argi izatea. ETB3rako zen. Gazteak nahiko zehatzak dira erabakietan; gustatzen zaie asko edo bat ere ez.



—Erantzun ezberdina jaso zenuten Ipar Euskal Herrian eta Hego Euskal Herrian?

—Iparraldean ez dute ETB3, ez da pasatzen TDTa delako. Orduan, ez dute bate-re jarraitu. Soilik lehen BURPa.

—Eta lehen BURP horren aurrean, zelakoa izan zen erantzuna?

—Nahiko ezberdina zen. Gure umorea pixka bat... normala da, euskaldunak gira baina badugu ere kultura frantsesa. Batzuetan gure umorea ez dute denek ulertu, hori posible da. Baina uste dut gazteen kasuan ez dela hori gertatu; gazteek umore unibertsala dute, interneti esker adibidez.

—Euskal “frikismoaren” lehen agerpena izan dela uste dute batzuek. Frikizat duzu zure burua?

—Hori atera zaigu horrela. Ez genuen pentsatu. Egia esateko, nik hitz hori ez nuen ezagutzen; hasi ginenean saioa egiten jendeak hori esaten zigun: frikiak. Kar-kar. Baina nik oraindik gaur egun ez dut ondo ulertzen zer den. Ikusi ditut AEBko pelikula batzuk baina... ez dut ondo ulertzen; baina uste dut frikitasun bat asumitzea ona dela gizartean.

—Donibane Lohizunen jaio eta hazi baina azken urteak Bilbon eman dituzu. Salto handia nabaritu duzu?

—Bizitza sozial handiagoa dago Bilbon. Jendearen ohiturak ere ezberdinak dira. Gazteen artean, ezberdinak dira ohiturak. Iparraldean ez gira kalean egoten, gehiago egoten gira lagunentzuan. Horrelako gauzak. Baina azken finean, gazteak gazteak dira edozein tokitan.

—Eta artistikoki zure nortasuna garrantzerako orduan?

—Iparraldea azken finean oso txikia da eta gutxi gira. Hemen herri handi bat da, gauzak pasatzen dira. Hala ere, Baionan kontrakulturaren eta kulturaren gauzak pasatzen dira. Bada ezberdintasun bat, baina...

—Chiloé telebista saioari esker munduan zehar ibili zara. Zelakoa izan da esperientzia?

—Egin ditut 35 saio eta izan da aukera bat mundua ezagutzeko. Nik bidaiatu izan dut nire bizitzan, baina ez horrelako frekuentzia batekin. Zaila da esatea zein izan den esperientzia gauza asko ikusi ditudalako. Baina galdetzen badidazu zer atxikitzen dut nere memorian... uste dut

“Ipar eta Hego Euskal Herriko gazteen artean ezberdinak dira ohiturak; baina gazteak gazteak dira edozein tokitan”

gaur egungo krisia ikusiz, ikusi dut nola sufrituko duten turismoagatik. Badakigu bidaiak egitea eta kulturak ezagutzea polita dela; baina ikusi dudana da turismoa bultzatu dugula 90eko hamarkadan eta gaur turismo gutxiago egiten dugula, herri batzuk sufrituko dute horregatik. Bestetik ez naiz bakarrik joan herri pobreetara, beste herri batzuetara ere. Kulturak ezagutu ditut, oso ezberdinak. Egin ditut saioak Suitzan eta Kolonbian eta oso zaila da gauza bat aukeratzeko.

—Egindako bidaiak guztietatik zein gomendatuko zenuke?

—Bidaiak bakoitzean gauza asko egiten nituen eta ikasi dut bidaiak, azken finean, direla gehiago zure buruan. Chiloé egiten dudanean joaten nintzen adibidez asteburua pasatzera Araia zaldiz ibiltzera. Araia da hemendik hurbil eta niretzat hori ere bidaiak zen. Hori ere ikasi dut;

“Zuberoan Maskaradak ikustea, uste dut hori egin behar dela behintzat aldi batez; kultura maila, jendearen indarra...”

bidaiatzea zen kontzeptua eta ez da beti beharrezkoa ez dakit nora joatea. Ikusten dugu badagoela jendea bidaietan ez duena bere portaera aldatzen, dira nahiko kontsumistak. Eta hori bera, ziur aski egiten dute hemen. Bidaiatzea bizitzaren eskola da, baina bidaiaren kontzeptua beste era batzuetara ulertzen da.

—Oraindik ez didazu bidaiarik gomendatu...

—Hemendik hurbil, Euskadin, badira toki asko. Adibidez, Zuberoan Maskaradak ikustea... uste dut hori egin behar dela behintzat aldi batez. Kultura mailan, jendearen indarra, haienezako inportan-

tzia... Hori esan nahi dut bidaietarako; egia da ere hori esan dezakedala bidaiatu dudalako.

—Eta negatiboki markatu zaituen zer-bait ikusi duzu munduan?

—Miseria; mundua pobrea da orokorrean. Adibidez egiten dugunean saio bat Jamaikan eta ikusten dugunean gaur egun Jamaikan zer gertatzen den... hori adibidez saioan ez zen agertzen. Gure saioan kultura erakusten genuen gehiago eta helburua gauza onak erakustea zen. Horretarako sartu nuen umorea, autokritika egiteko turistari buruz. Ni turista profesionala nintzen eta horrekin jolasten nintzen erakusteko pixka bat zeintzuk ziren nire mugak.

—Turista profesionala zarela... zeintzuk ezaugarri bete behar ditu turista profesionalak?

—Turistak denetarik dira, baina zer da

turismoa? Toki batera joatea plazera hartzeko. Batzuk egonen dira hotelean, beste batzuk joanen dira merkatu batzuetara argazkiak ateratzera... baina turismoa da plazera.

—Chiloé esperientzia amaituta zertan zabilta orain?

—Hamar urtez denetarik egin dut: an-

tzerkia, bidaiak, moda, telebista e.a. Orain proiektu berri batzuk ari naiz inbentatzen eta gehiago izanen dira dokumentalak. Grabatzen ari naiz peli-dokumentala. *Nire argazkia* deitzen da. Joan naiz Cannes-era orain dela bi hilabete aurkezteko proiektua. Izanen da elkarrizketa bat filologo batekin; euskalkie buruzko elkarrizketa da. Hiru familia hautatu ditugu eta Euskal Herriari itzuli bat egiten diogu euskalkiak entzuteko. Euskaltzaindiak ere parte hartuko du; Bizkaiaren laguntza ere badut. Filologoaren elkarrizketa da erakutsiko duguna; baita familiak eta beren kezkek ere. Ideia da dokumentalean euskalkiak entzutea eta ere erakustea nola kazetari batek bere elkarrizketa aldatzen ahal

duen elkarrizketa eginez. Nola bere elkarrizketa aldatzen du jende ezagunarekin. Adibidez zu orain. Ondo konpontzen bagara zure elkarrizketa ona izanen da. Ez bagara ondo konpontzen... hori ere erakutsiko dut dokumentalean. Jok-films da nire ekoiztetxea.

“Turistak denetarik dira, baina zer da turismoa? Toki batera joatea plazera hartzeko”

—Noiz eta non ikusi ahal izango da? —Heldu den urtean; izanen da gehiago peli moduan. Zineman, telebistan eta toki ezberdinetara eramanen dugu, baina gehiago izango da zinema. Eus-

karaz izango da. My Jok berriro hartu dut baina ez da izanen berriro “My” Jok, My joan delako. Jok-films da nire ekoiztetxea. Pelikula Benito Duinatekin egin dut, bera da gidoilaria. Eta gero lantaldea, kamerak e.a.

—Beste proiekturen bat esku artean?

—Dokumentalaz gain badira beste proiektu batzuk baina horietaz ezin dut ezer esan... kar-kar. Beste proiektu bat hemen Euskadin eta beste bat munduan.○

Info+: www.basqueaudiovisual.com



GETXO 2
AKORDATEN NAZ 2

www.ukaldizkaria.biz

URIBE KOSTAKO ALDIZKARIAREN EKOIZPENA **uk**

Kopiak **SALGAI**
UK aldizkariako bulegoan

Martikoena 16, 2. solairua
Algorta (Getxo)
Alangoko Osasun Zentroaren alboan

uk Uribe Kostako aldizkariaren ekoizpena



1989tik jaia eta klik!

Sanisidroak, Sanjuanak, Paellak, San Lorentzo,
Romoko Jaiak, Saninazioak, Portu Zaharreko Jaiak... jairik jai.
Horrela ibili da 2010ean beste behin ere Mikel Martínez argazkilaria Getxoko jai danetako
parrandazaleak "in fraganti" harrapatzen. Ekainean argia ikusi zuen
getxoztarrek gogotsu hartzen duten PhotoAlbuma;
seme-alabak, lagunak, gurasoak, maitaleak... bila eta bila ibili ohi dira getxoztarrak,
ezagunak aurkitzeko gogoz. 1989an hasi omen zen Martínez
kamera eskuan jaietako argazkiak egiten; auskalo zenbat "kareto" dituen bere artxiboan.
197. zenbaki honetan aurrerapena doakizu: bilatu eta irabazi!

Argazkiak: **Mikel Martínez**











BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urteik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf.94 460 70 84

[zinema]

Gaurik laburrena Algortan

Uztailaren 6an eta 7an ospatuko dituzte film laburren gauak **Biotz Alai plazan**



Gartzela film laburraren kartela

Zinemaren magia aipatzen da askotan, pantaila handiaren erakargarritasuna. Baina zinemak xarma berezia dauka kalean ere, udako gau epelen babesean. Kultur Etxeak urtero antolatzen du Gaurik Laburrena eta egun bian erakusten dute film laburren urteko uzta. Algortako Biotz Alai plazan izan ohi da, eta aurten, uztailaren 6an eta 7an.

Hizkuntzaren arabera banatuko dituzte filmak oraingoan ere. Hilaren 6an emango dituzte gaztelarazkoak, 7an euskarazkoak. Lehen egunean 11 film ikus ahalko dira: Eider Kadiernoren *La vida suena*, Ander Pardoren *Aterrizaje forzoso*,

Manuel Ortega Lasagaren *Santiago Martínez, cazador de OVNIS y alienígenas*, David Muñoz, Adrián Cardona eta Rafa Dengraren *Brutal relax*, Manuel Arijaren *La Piñata*, José Luis Montesinosen *La historia de siempre*, Samuel Ortí Martíren *Vicenta*, Roberto Pérez

Euskarazko laburrak hilaren 7an emango dituzte, egunean

Toledoren *Los gritones*, Paul Urkijoren *Jugando con la muerte*, Leticia Doleraren *A o B* eta Manuela Morenoren *Camas*.

Euskarazko gauean, barriz, honakoak proiektatuko dituzte: Juan Bidegainen *Etxeko bandan*, Asisko Urmeneta eta Juan José Elordiren *Gartxot*, Maialen Sarasuaren *Hemen nago*, Fermín Aio eta Jagoba Kadiernoren *Kontaidazu burdinaren ipuina* eta Iban Lizarralderen *Gartzela*. Azken biak aurtengoak dira, besteak 2010ekoak. Egun bietan hasiko dira emanaldiak 21:00-etan eta sartzea doakoa izango da.

Hamabosgarren edizioa da aurtengo eta film laburren ekoizpena bultzatu gura dute ekimenagaz. Herriko beselako Zinema zikloetan ere egile gazteen lanak erakusten dituzte, berbarako, Zinema Paradison. ◊

Heletan Zuzenean

Uztailaren 1etik 3ra izango da Euskal Herria Zuzenean jaialdia, joateko garaiz zabilta



60 ikusizun eskainiko dute 5 eszenatan, Heletako zelaietan

“Badator ekaitza, itsas-sumendia, erupzio bolkanikoa” dio kantuak, horixe da Euskal Herria Zuzenean festibala. *“Mugetatik at!”* lelopean ospatuko da uztailaren 1, 2 eta 3an Heletan, azken urteotan legez. Iaz benetako ur jariora iritsi zen, baina aurtengo ekaitzak forma desberdina dauka: antzerkia, musika, dantza, hitzaldiak, erakusketak, txaranga eta abarrez beteko da baxenafar herrixka, muga guztien gainetik.

Kontzertuen egitaraua zabala da oso. Barikuan joko dute Moorcheba, Nasser, Killers, Estricalla, Anari edo Mojito

System taldeek. Zapatuan Ken 7, Shaka Ponk, Chinese man, Split 77, The Rodeo Idiot Engine, Athom Rumba edota Brunken Balordi arituko dira, eta domekan, Prowpuskovik, Betagarri, La Phaze, Norte Apache, Bongo Botrako, Zep, Auras edota Ardibeltza.

Hainbat sarrera mota dago, egun bakarrek edo hiru eguneko bonoa. Kanpalekua ere prest daukate eta ez da faltako non jan eta zer ikusi. Programa osoa eta informazio gehiago daukazu festibalaren webgunean. Izan ontsa! ◊

www.ehz-festibala.com

los guaitos > omenaldia Algortan

Gorputzi Egunekoa jai ospakizun ezaguna da Algortako Portu Zaharrean. Etxetxu plazan egingo dute meza, ateri zabalean, eta sardina-jana izango da ondoren, urtero legez. Algortako Biotz Alai abesbatzak lagunduko du mokadutxoaren ordua. Baina arrastirako ekitaldi berezia antolatu dute. Los Guaitos musika taldeari gorazarre egingo diote, kontzertu batez, 19:00etatik aurrera. Pedro Mari Arana, Joaquín Vega eta Ricardo Calvo Portu Zaharreko lagunak osatzen zuten 70eko urteetako musika taldea. Kontzertuan hiru kantari gazteagok abestuko dituzte guaitoen kantak, eta Badaukat taldea arituko da ondoren. Amigos algerños guaitos elkarteak antolatu du omenaldia.

kontzertuak > jaietako eskaintza

Hasi dira jaiak han-hemen eta ez da makala musika eskaintza. Ekainaren azken asteburuan izango dira sanjuanak Leioan. Barikua 24an kontzertua eskainiko dute Sorkunek eta Esne Beltzak Barandiaran Behekoa ikastetxean eta Gosek eta Basakik txosnagunean; zapatua 25ean, barriz, Baketazo, Estricalla eta Ze Esate! arituko dira txosnagunean eta Iguana Tango eta La Guardia ikastetxean. Sopelak hartuko du lekukoa eta 30ean igoko da txosnaguneko taula gainera Zea Mays. Biharamunean, uztailaren lehenagaz batera joko du La Kinky Beat taldeak. Hilaren 2an, ostera, Cantecca de Macao arituko da Udaletxe plazan eta Gora Herria txosnagunean.

diskoak

Izana izanen
Skatu
Musikherria



Iruñerriko gazte taldearen bigarren diskoa da *Izana izanen*. Erritmo biziakaz jarraitu dute, hainbat estilotako abestiakaz. Haize tresnak nagusi dira, baina tartea egin diete rock eta punk doinuei. Kontzientziak astindu gura dituzte nafarrek bere hitzakaz, baita euren mezua zabaldu ere. Hamalau kantuk osatzen du bigarren lana.

Afrodiaspora
Susana Baca
Luaka Bop



Amerikako musika beltza egiten du peruarrak, herrialde hartako doinuekara jo ohi du. Oraingoan mugak zabaldu eta New Orleans, Kolonia Kuba eta Argentina ere bisitatu ditu, hango erritmoen bitartez: cumbia, plena, bomba, tango edota soul doinuek entzungo dituzu disko honetan Susana Bacaren ahotsean.

Thirty Roads
Moondogs Blues Party
Gaztelupeko Hotsak



Galegoak dira baina amerikar blues eta folka jotzen dute. Bizitzaren misterioa, frustrazioa, gorroto unek, deabruaren iruzurra, maitasuna, bide iraunkorra, eta segundoro atzean geratzen diren 30 bat erreperideren helmuga bakarra; horiek osatzen dituzte Javier Pradoren abestiak. Besteak beste, Victor Aneirosek kolaboratu du diskoan.

etorri
eta
ikusii!!

ORIXA

liburudenda

Alangorta 8 (Euskal Herria kaleaguz bat)
Tf. 94 491 68 05
Algorita

Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00

(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorita

[liburuak]

Igartuaren azken poema

Itsaso kontra bat plazaratu dute, **Karmele Igartuaren** poema liburu postumoa

“Azken poema hau ez da azken poema”. Azken olerkiak idatzita utzi zituen Karmele Igartua Bengoak (Aretxabaleta, 1959-2010) abuztuaren. Gaixotasun luzearen ondorioz hil zen, baina haren uzta kaleratu barri du Pamiela argitaletxeak hil batzuk igarota; *Itsaso kontra bat* duzu aretxabaletarraren poema liburu postumoa. Hirugarrena egin zuen Igartuak azken honegaz. “Bizitzaren eta amodioaren indarra, eta herio-minak sortutako egonezina” erakusten dituzte olerki hauek, eta “bizitzaren eta herioaren orbainak gozatzeko ahaleaginean, sen berberaz bilatzen du sosegua, alegia, edertasunean oreka, liburuan babesa, edo finean, *Itsaso kontra bat*”.

“Bizitza babestuz eta maitatuz eta ederretsiz idatzia, senez eta intentzio osoz” idatzi zituen poemak Igartuak, bai azken hauek, bai *Hitzak orbainetan* eta *Denbora*

Pamiela argitaletxeak kaleratu du Igartuaren hirugarren liburua

enaren hegaletan liburuetan plazaratuta-koak. Orain hiru urte kaleratu zuen lehena, 2009an bigarrena, izan ere, 2005ean Bergarako Idazle Eskolan hasi osten zabaldu zen bere jario literarioa.

Baina jario hori ez zen mugatu poesia



Igartuaren zenbait olerki: www.idazten.com

idaztera. Igartua Aretxabaletako eskolan maistra aritu zen eta hiru obra antzeztu zuen ikasle eta irakasleak batera. Gainera, *Mugalari*, *Administrazioa Euskaraz*, *L. Luma berrien eleak* agerkerietan idazlanak argitaratu zituen.


Kide ohiek ezin ahantzi bere emaria eta hainbat omenaldi egin zioten. Senperko Egun-pasa literarioetan gogoan hartu zuen Hatsa elkarreak, eta Bergarako Idazle Eskolak *Karmele gogoan* ekitaldia egin zuen azaroan. Orain betiko lotuko dira izkribatuta bere koloretako hitzak, “*morian irauten baitu IZAN denak*”... ○

liburuak



Barazki mokaðu goxoak
Kaskazuri Jatetxea
Tartalo

Sukaldaritzaren liburu euskaldun eta osasuntsua. Donostiako Kaskazuri Jatetxeko sukaldari taldeak, Elias Argote buru, sasoiaren sasoiako produktuak erabiltza osatu dituzte errezetak. Proposamen koloretsu eta usaintsuak formato txikian eta aurkezpen zainduagaz. On egin!



Tangerko ametsak
Jon Arretxe
Erein

Kultura eta paisaia aberasduen txokoetara eroango du irakurlea Jon Arretxek beste behin ere. Nobela baltza bada ere, bidaiaren kontaketa tagaz tartekatuta dago. Bamako eta Tanger artean gauzatuko da trama, Afrika Beltzaren eta hiri marokorren artean.

[kirola]

Axi Muniain > surflaria

“Olatu erraldoiak ihes egin zigun arren, dokumentala egiteko irudiak lortu ditugu”



Ekainaren 25ean izango da Muniainen hitzaldia eta dokumentalaren proiektzioa

Itsasoagaz lotutako ekimen ugari batuko ditu Getxo Sea Week-ek ekainaren 20tik 26ra. Surfak protagonismo berezia izango du, eta ekainaren 25ean 14:00etan Kirol Portuan Axi Muniain surflariak hitzaldia eskainiko du bere proiektuen barri emateko. —‘Naturgas Big Wave 2011’ egitasmoaren barruan, Europako olaturik handiena harrapatzen saiatu zinen, ezta?

—Egia esan Naturgasen proiektuari hasiera eman genion gabon ondoren eta baldintzak gogorragoak izaten dira. Udazkenean hanketako hezurak apurtuta izan

«Euskal Herriak duen kokapen geografikoa estrategikoa da»

nituen. Nire beldurra hori zen: sasoi onean ez nengoen eta proiektua neguko bigarren partean egitean, ia zer moduz portatzen zen bai itsasoa bai nire hanka. Zorionez oso ondo ateratu zen, olatu erraldoi horrek ihes egin zigun arren.

—Eta zein neurri zuen olatu horrek?

—Ez dut batere gustuko neurriez hitz egi-

tea. Munduko olaturik handiena 60 oin inguruan ibiltzen da. Aurtengoa Belhara aldean izan da, lehen aldiz Europara etorri da saria. Normalean neurri horietan ibiltzen da: 15-20 metro.

—Hiru hilabetetan zehar olatuaren atzetik ibili zara. Zelan egin duzu?

—Askotan lo egin barik. Zorionez izan ditugun baldintza antiziklonikoei eskaini digute haize-makalak toki askotan, zeru garbia... Bere buruhausteak ere baditu, toki egoki ugari zeudelako. Leku guztietan egon nahi eta ezin. Olatuak ihes egin zigun, baina irudi oso egokiak lortu ditugu, eta irudi horiekin dokumentala estreinatu berri dugu. Bertan azaltzen dugu proiektu osoa: momentu goxo eta latzak... baina merezi izan zuen.

—Europa mailan Euskal Herria erreferentia da olatu erraldoietan...

—Bai, Euskal Herriak duen kokapen geografikoa estrategikoa da, itsasaldi bortitzei ihesa emateko. Kostaldeak duen anguloatik mendebalari babes egiten dio. ○

Info +: www.aximuniain.com

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirol moda



350 m²

KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

Eider Fernández eta Lorena de Frutos > txakur-hezitzaileak

“Txakurrak hezteko ez dugu erabiltzen zigorrik, ez lepokorik, ez oihurik”

Zigorrik erabili barik hezten dituzte txakurrak Zintzoa kontsultategian. Eider Fernández eta Lorena de Frutosek zabaldu barri dute Romon eta apurka-apurka hedatzen ari da heziketa-sistema barria.

—Txakurrak hezteko modu berezia erabiltzen duzue, zertan datza?

—Ez da oso ezezaguna, baina hedatzen ari da. Ez dugu erabiltzen zigorrik, ez metalezko lepokorik, ezta oihurik ere. Txakurrak gure esanak uler ditzan saiatzen gara, gustuko ez ditugun esamoldeak beste alde batera desbideratuz.

—Erraza da helburua lortzea?

—Txakurrek ulertzen dute oihuka baino hobeto eta jabeek ere parte hartu behar dute heziketan. Eurekaz lotzen gara, eta txakurra eta biak elkarregaz hezten ditugu, jabeari azalduz txakurra nola ulertu eta egoera nola bideratu gauzak egitea lortzeko. Bakarrik ezin genezake egin, gero jabeek etxean, gure modu berberak erabili behar dituzte.

—Zenbat denbora ematen duzue txakur bakoitzagaz?

—Hasibarriak gara eta oraintsu gabiltza dana antolatzen. Era desberdinean sailkatuko ditugu txakurrak, arazoa den edo zer edo zer zehatza erakustea gura duten. Gauza zehatzetarako tailerrak egingo ditugu: uhalagaz lasai ibiltzeko, txakurragaz nola jolastu, oinarriko trebetasunak erakusteko e.a. Baina arazo larriak badaude, demakun txakur batek hozka egiten duela, horrelakoetan etxera goaz eta bertan egiten ditugu saioak. Tailerrak egiten ditugunean taldeka izaten da, urteerak barne, batzuetan jabeakaz eta besteetan jaberik barik. Etxeetan, barriz,



Gobelaurre kaleko 45.ean aurkituko dituzu Fernández eta De Frutos

banaka egiten ditugu saioak, txakur horiek ezin dutelako egon beste txakur-rekaz saioetan.

—Eta tamainaren arabera ere banatzen dituzue?

—Batzar Sozialak deritzon ikastaroak ere egingo ditugu, txakurrak elkarregaz egoteko eta elkarren artean jolasten ikasteko.

“Betiko ametsa izan da, txakurrakaz ibiltzea gustuko izan dugu beti, txakur jabeak izan gara eta honetan ibili gura genuen”

Horietan tamainaren arabera banatuko ditugu, bestela nahiko agobiantea izaten da txakur txikientzat.

—Nolakoak izaten dira saioak?

—Batzuetan jabeakaz saio teorikoa egiten dugu hasi aurretik. Arnesak erabiltzen ditugu, sekula ez lepokoak, eta uhalak gutxienez bi metrokoak dira, uste

baitugu txakurrek eroso joan behar dutelako kalean. Jabeak erakusten diegu nola eroan txakurrak kalean. Horregaz eta sariakaz egiten dugu guztia. Gozokiak izan daitezke edota txakurrak gura duen beste jakiren bat.

—Nolatan animatu zineten horrelako gai batez lan egitera?

—Gure betiko ametsa izan da. Txakurrakaz ibiltzea gustuko izan dugu beti, txakur jabeak izan gara eta honetan ibili gura genuen. AEPA elkarteagaz ikasten hasi ginen, heziketa modu positiboan egiten dutelako. Antzeko kontsultategirik ez zegoen inguru honetan eta animatu gara; oso pozik gaude. ○

Fredi Paia

Sarriko San Juan jaia

Getxoko Andra Mari eta Algorta auzo arteko mugan; urlik Borobia, berendik Bidezabal eta sandik *anbulatorio* deitzen deutson ingeruri, *Sarri* esaten eutseen gure arteragokok. Orain Anbulatoriok eta aurreko plazak osotzen dauren ingeru erdin, *Sarriko lande* egoan. Landaren erdigune ganaduk edateko uraskadun *labaderok* koisten iaun. Sarri, Sarriaurre, Dendariñe eta Abadene etxek landamine ixiten euden.

Getxon, Goierriko Goienetxeko lantza-*rren*, auzokako futbol lehiakete egiten zana sasoi beten. Goierri, Zaborra, Litro, Humedad... ziren txapelketa haitan parte hartzen euden gazte getxoztar, sopoloztar eta berangoztarrek sortutako taldeen uzten batzuk. 1950 edo 51. urten, Sarri auzuneko gaztek irebazi euden txapelkete. Zeozelan ospatu behar zala pentsa euden eta baita San Juan bezperan jai berezi presta bere. Orduko jazokeren barri emon deuskue Gotzon Landeta eta Goio Diaz de Oñatek.

Idea *Fuman* ezuzeneko Gallastegi, algortar margolari ezagunarena ixen ei zan. Jantzi merkeen sarikete antola euden. Eurak baltzik pintata eta gerribuelte zaku zatikez *taparrabu* eginte jongo ziren. Euretaringo bat, jatorrigaitik *Lejones* esaten eutseen morrosko derditxedu bet, *baltzen errege* izentau euden eta palmera orriz apainduriko gurdien beten ganen atara euden Doniene bezperatan. Burun kartoizko koroa imini eta idunera alanbreagaz lotu eutseen. Bizkarren *Productos Marsan* txarriki enpresako uzena idatzi eutsen, beste betzuri, ostera, karramarro baltza pinta eutsen. Sarriko landako iko baten orrik koroako alanbren engantxa dakozan barrez, eta gurdikamara jeusi zan morrosko goradi. Landa erdire ailega ziranen lapiko handi beten barrura sartu euden errege baltza. Lapiko ingeruko bedarrerri su emon eta tribu afrikar baten afari-antzerki egin euden. Akabureko, ostera, *Lejones* benetan



Goio Diazek utzitako argazkia**

erreten hasi zan, aies, eta palu bet erabili behar ixen iaun ingurukok kendu eta lapikoti urteteko.

San Juan su handi biztu euden gero eta auzoko duztik, adinekoko eta seinak bere zakukez jantzite agertu ziren eta, afrikar modure egin euden jantza suaren ingerun. Tire, duztik *Kakel Zalbidea* ixen ezik, ha

«Sua inderra galtzen hasi zanen ganeti egin eutsen salto, usadio zaharrari tireka»

Salakov betegaz agertu zan, esploradore jantzite. Sua inderra galtzen hasi zanen ganeti egin eutsen salto, usadio zaharrari tireka. Sasoi hatan Sarriko landati Abra duzti ikusten zan, geurko etxen lekun solok egozan-da.

Txarri beten zozkete bere egin euden. Ganorazkorik erosteko dirurik ez eukenez

Algortako Ortizek txarrikume bat emon eutsen. Eta zozketek entzutea koxi egian txarrik *ocho arrobilas* eukazala imini euden rifen.

Geurko Garai kafeteri ondon tabernadende eukon Landetak txosne altxa iaun. Mostradore baztarren karretile bat itxi eta kartela imini eutsen ganen: *orduven beteti eurrena garraioa debalde ixengo da.*

Ondinokarren getxoztar ugerik gomuten deko egun ha. Areal edanta buelta ziren euren etxetara. Euretaringo betzuk, aurki, asunetara jeusite akaba euden gau magiko ha.○

* Zutunik ezkerretik-eskumara:
1-Muebles 2-? 3- Andoni Epalza 4-Juan Sarria
5-San Martin 6-Kakel Zalbidea 7-Patxi Kamiruaga
(txapelagaz) 8-Fuman Gallastegi 9-Patata
10-Iñaki Larrondo Pajarito
Jarrita ezkerretik eskumara:
1-? 2-Martin Aspuru 3-Ostaikoetxea
4-Goio Diaz de Oñate 5-Kuartango
Azken umea Andoni Landeta.
Azken aurrekoa: Sarria txikerra?

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitez.



portu zaharra bar
 Portu Zaharra kalea 35
 48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
 Tf. 94 460 20 33
 portuzaharra@portuzaharra.com
 www.portuzaharra.com



SOLAETXE
 Eguneko menua **Jatetxea** Karta
 Asteburuko menua Oilasko erretegia
 Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantsolaetxe.com



La Triangu.
 Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



berezi
 Hanburgesak Ogitartekoak
 Sanwichak Plater konbinatuak
 SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
 ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz



txakoli mota gane tx
 txakolina
 Leioa-Unbe errepeidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio
 Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



UNAI TABERNA
WWW.UNAITABERNA.COM
94 466 16 61
URGULL KALEA 2, (ALGORTA)



CAFETERIA COSMOPOLITA
 Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo
 Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



JAN-TOKI ORMAZTEBAL
 Eguneko menua
 Menu bereziak
 Karta
 Erreserbak:
94 476 2389
607 21 89 61
 LUTXANA-ERANDIO



GURE ETXEA taberna
 HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
 Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[udako zapoak]

Rabu Urdulizen

Uztailaren 9an izango da 45. Txapelketa



Kazolarik txarrenak eroango du egurrezko koilara

Etzetik kanpo non jan hamaika ideia eman ohi dugu atal honetan. Neguan ez dago besterako aukera handirik, baina udan sukaldaritz txapelketak izaten dira herriz herri eta jairik jai. Orriotara lau ekarri gura ditugu horietako batzuk, aldizkariko udako lau zenbakiotan. Animatu, heldu lapikoari eta parte hartu!

Lehen izango da Urdulizko Rabu Txapelketa, uztailaren 9an, zapatua, eta Txori Alai elkarteak antolatzen du. Orkonpon taldeko sukaldariak kontatu dizkigu sekretuak buztan gisatu ederra egiteko, Luis Zalakainek.

Ahal dela irinatik pasa behar dira buztan zatiak eta oliotan frijitu. Ondoren, berakatza tipula eta tomate txigortzen ipini behar dira gatz apur batez. Buztana

gehitu behar zaio ostan, eta gatz, piper beltz beltza, piper txorizeroa eta salda bota behar zaio; azenario eta porruagaz egindako salda izan daiteke. Buztana hiru orduz egosi behar da, behar duenean salda gehituz. Behin eginda, patatak gehitu eta su baxuan eduki behar da ordu erdiz. Apur batean pausatzen utzi eta listo!

Epaileek puntuatuko dute rabua eta Urdulizen epaituko dituzte gatz-puntua zein dastamena, itxura eta buztana zein pataten gogortasuna. Ohiko sariez gainera, sari berezia ere ematen dute: kazolarik txarrenak eroaten du egurrezko koilara. Atzetik, baina hori ere txapeldun! o

Osagaiak: Txahal buztana, olio, patatak, berakatza, tipula, tomate, azenario, piper txorizeroa, ardoa (zuria edo beltza) eta gatz



Jurikaldai
 JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI
 KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO




BASARTENA
URDULIZ
 Teléfono: 946 761 128



JUAN-MARI
Harategia eta txarkuteria
ARTESANA
 LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
 Aituak gara, Urdaiatzpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!
 Alangobarri 10, ALGORTA
 Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra
 Aita Gotzon 4, URDULIZ
 Tf. 94 676 07 15



Taberna Berri
 Sarrikobaso 4 - ALGORTA
 Tf. 94 430 64 93



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Ariñuze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA

HARTU TXANDA

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixareriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

KOSKA
irratia 108 fm

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Herriko jaiak eta oraindino kalera urten barik? Trankil, San Juan suak argituko dizu gaua eta bidea, segi eta topatuko duzu akelarrea, eta sorginen zein lagunen irriak.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Hiriaz nazkatuta landatxo batean ipiniko duzu orurtxo: lekak, tomateak, azenarioak, piperrak, tipulak e.a. landatuko dituzu, baina zergatik ez pepinoak?

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Uda hasi da eta zu etxean sartuta? Eguzkiak berotzen du eta itsasoko ura fresko dago, ezin hobeto. Hartu txankletak eta eskuoihala eta segi hondartzara, demonio!

META



(Irailak 17 urriak 16)
Shakiraren kontzertuan primeran ibili zinen aldakak astintzen batera eta bestera. Baina biharamuna galanta izaten ari da, hobe zenuen Pantxoa eta Peio entzuzera joan bazina...

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Luju! Azterketak gainditu eta dagoeneko oportetan, zorionak! Ederto ospatuko duzu lagunakaz sanjuanetan, baina kontuz ibili lamiakaz, harrapatu eta ez dizute etxera bueltatzen utziko...

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Ikasturtea amaitu da, lasaiago da orain lana, eta azkenean egingo duzu merezitako jai; umea bikorekideguz utzi eta segi kalera, lagunak zain daukazue-eta!

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Udako Euskal Unibertsitatean izena eman duzu eta emozionatuta zabilzta. Eibar, Baiona eta Iruñea, denak ezagutu gura dituzu. Besteentzako lekurik ez duzu utziko ala?

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Gurasoakaz eztabaidatuko duzu eta zigortu egingo zaituzte etetik urten barik. Ez egin negar, beheko solairuan bizi zara-eta. Ez zara konturatu kaletik metro batera bizi zarela?

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Ibilaldia, jaiak... eta oraindino parrandarako gogoz? Euskal Herria Zuzenean jaialdia bertan daukazu, primeran pasa eta lagun barri asko egingo duzu...

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Oraindino ez duzu lortu txirula jotzen ikastea? Ez dago arazorik, makina bat jai datoz udagaz batera eta izango duzu non praktikatuz. Diru apur bat ere lortuko duzu oportetan joateko.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Ibilaldira joan zinenetik maiteminduta zabilzta, txora-txora eginda, baina telefono zenbakia eskatzea ahaztu zenuen. UK aldizkarian iragarkia jartzea daukazu, prezio berezia egingo dizute...

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Lamiaren batek sorgindu zintuen Lamiako Maskaradan eta burua galduta zabilzta, baina ordutik ez duzu ikusi. Ibai ertzera joatea duzu onena, belarriak zabaldu eta entzungo duzu bere kantua.



NORA EUSKAL HERRIA

Bideak zabalduko dizkigu gure lurraldeak miatzeko eta ezagutzeko.

Eskuratu

KIOSKOAN:

Hilabetero 2,5€ ordainduta
BERRIA egunkariarekin batera

ETXEAN:

Harpidedun eginda, hilabetero etxean
urtean 24€ ordainduta.
Kioskoan baina %20 merkeago.

Harpidetza egiteko:

TELEFONUZ: 943 30 35 54


POSTA ELEKTRONIKOZ: harpidetza@nora.aldizkaria.info

WEBGUNEAZ: www.nora-aldizkaria.info



Erariketa Irudidunak

Zutabe eta lerro guztien baturen emaitzak idatzirik dituzula kontuan izanik, eman ezazu animalia bakoitzaren balioa.



ez horren gazetxoak < bilatu eta irabazi > gazetxoak

Nor elkarrizketatu dugu 197. zenbakiko Aitormenak atalean?

> Aurrekoaren erantzuna: Txala mobil herriz herri

> Irabazlea: **Xabier Angulo***

*deitu telefonoz: 944 911 337

Urez betetako zein ontzi erraldoitan egin ohi dugu igeri udan?

- **Bainuontzian**
- **Igerilekuan**
- **Pontxingoan**

> Aurrekoaren erantzuna: Sua

> Irabazlea: **Andoni Sarasketa***

*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA

Oinutsik
kontsulta podologikoa

Zubigane 4, Sopelana
Tf: 94 404 74 20
oinutsik@euskalnet.net



SARIA

La Gusana
liburudenda

Tellagorri plaza, Algorta
Tf: 94 491 14 12

lagusana

Bidalari erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



JOSE SANTIAGO BILBAOK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

ALGORTAKO ZABALA ESKOLA, 1923

Alkarregaz, hemen ditugu eskolako neskek, txikiak eta nagusiak; nagusien maistra Dolores Rodríguez zen eta txikiena Luciana Salazar, geroago (Errepublikara garaietan) euskarazko eskolak emango zituen udaletxe zaharrean. Eta zergatik deitzen da Zabala eskola? Juan Bautista Zabala Bilbon jaio zen 1833an, baina gurasoak getxoztarrak zituen. Testamentuan (1905-12-02an hil zen) udalari 500.000 pezeta eman zizkion gazteen heziketan erabiltzeko. Sei urte beranduago, Ildefonso Arrola alkate zela, inauguratu zen eskola 1911-12-18an, arrastiko hiru eta erdietan. Horregatik aurtengo mendeurrenaren ospakizunak. Zorionak, Zabala Eskola! o

Izenak: Marina Aguirre, M^a Jesús Landate, Dolores Rodríguez, Juana Ayo, Beatriz Zugazagoitia, Mari Zabala, Rosa Gutiérrez, --- Mancisor, Blanca Imaz, Hortensia Martín, Tere ---, Conchita Saitua, Visi Santamaría, Angelita Zabala, Carmen Zabala, Begoña Zabala, Paquita Zabala, Josefina Martínez, Presen Gutiérrez, Jesusa González, Micaela Aranbalza, --- Carrandi.

Oharra: 22 izen baino ezin izan dugu identifikatu. Eskertuko genizuke baten bat ezagutzekotan UK-ko lantaldeari jakinaraziko bazenio.
Oharra UK 196: (Algortako San Nikolaseko "Acción Católica" taldea, 1941/42 argazkian falta ziren izenak) 46. Jose Luis Arteta, 47. Peru Garate, 48. Vicente Saitua 49. Amancio Landa 50. Peli Urrutia.

[aitormenak]

URKO ARISTI > Eguraldi aurkezlea

“Lagunek ‘borraskas’ deitzen didate, begi bistakoa da zergatik”

Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: **EITB**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Kankailu hitzontzia.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun?

Telebistako nagusi, zenbait gauzak sorrarazten didaten ‘malaletxea’ konpontzeko.

Badakazu ohitura txarren bat?

Azazkalak jaten ditut.

Aitor dezakezun bizio bat.

Patata frijituak.

Animalia izango bazina, zein izango zinateke? Zergatik?

Katakumea, jendearen mimoak jasotzeko.

Parrandarik politenak non? Zergatik?

Iruñeko sanferminetan, uztailaren 14an, azken eguna izanda, etxeoak geratzen direlako, eta jendeak barruko guztiak botatzen dituelako.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?

Donostiako Haizearen Orrazia. Lehorrekoa izaki, itsasoak izugarri erakartzen nau, eta toki hori zehazki oso erromantikoa zait.

Miresten duzun historiako pertsonaiaren bat?

Hori erantzuteak Missen modura sentiaraziko ninduke.

Ezizenen bat duzu? Zer dela eta?

Lagunek ‘borraskas’ deitzen didate, begi bistakoa da zergatik.

Gorroto duzun topikoa?

Eguraldikoek ez duzue sekula asmatzen.

Zer barik ezin zaitezke bizi?

Patata frijituak.

Zein galderari ez zenioke inoiz erantzungo?

Zer sekretu kontatu dizu horrek? ○

LABURREAN— Udagaz batera hondartzara joateko gogoia etorriko zaio bati baino gehiagori. Bainujantzia eta toalla eskuan, eguraldia lagun izan beharko dute eguzkizaleek. Hondartzara joan orduko, baina, gomendagarria izaten da bada-
ezpada eguraldiaren barri izatea, eta horretaz arduradurazten da Urko Aristi (Ibarra, 1977) ETB-3ko eguraldiaren iragarlea. ETB-1en egin bezala, nafartutako ibarrarrak lainotzar, antizikloi, ziklogenesi eta bestelako fenomeno meteorologikoen barri ematen digu egunero, betiere bere ukitu pertsonalagaz. Isobaren korapiloaz gain, Aristi beste hainbat saltsatan ibili da: Bertatik Bertara, EITB Kultura, Bi errepidean... UK-ko aitormen-frontea iragartzeko gai izango ote da?

Getxo ezagutzeko bizikletaz



Ezagutu nahi duzu Getxoko flora, fauna, paisaia, aspaldiko lanbideak eta hori guztiori zelan ageri den Getxoko izenetan?

ETORRI BISITA GIDATUETARA!



• BETIKO GETXO •

Eguna: Ekainaren 25a · Ordua: 9:00ak Tokia: Andra Mariko elizan

BASERRIA eta KOSTALDEA
Getxoko kostaldea eta baserri ingurua
ezagutzeko ibilbidea

· 3 ordu inguruko ibilbidea izango da.
· Bizikletaz egingo da
· Euskaraz izango da

IZENA EMATEKO EDO
INFORMAZIO GEHIAGORAKO:
688 635 350 bulego orduetan
getxo.toponomia@gmail.com



Getxo
bizi ezazu

GETXO JAZZ

UZTAILAK 1-5 JULIO 2011

35TH INTERNATIONAL GETXO JAZZ FESTIVAL
 GETXOKO XXXV. NAZIOARTEKO JAZZALDIA
 XXXV FESTIVAL INTERNACIONAL DE JAZZ DE GETXO



OSTIRALA 1 VIERNES

ORNETILLOS (España)
 AKI TAKASE NEW BLUES PROJECT

LARUNBATA 2 SÁBADO

SORIN ZLAT TRIO (Rumanía)
 LEE RITENOUR

IGANDEA 3 DOMINGO

CARL WINTHER TRÍO (Dinamarca - Suecia)
 DAVE HOLLAND QUINTET

ASTELEHENA 4 LUNES

MELQUIADES QUARTET (Francia)
 CHUCHO VALDÉS &
 THE AFRO CUBAN MESSENGERS

ASTEARTEA 5 MARTES

Ganador del Concurso de Grupos
 BRANFORD MARSALIS DUO AND QUARTET

94 491 4080

www.getxo.net
kulturetxea@getxo.net

PLAZA BIOTZ ALAI 21:00

Sarreraren salmenta
 venta de entradas
 944 310 310
www.bbik.es
 bbk[®]

